zenbakia. 1999ko abenduaren 3a. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



# Eski zaletasuna

## Geroz eta bergarar gehiago eski-asteburuetan

lenu horia
NAULT *Txanda eskatu barik*

EZ UTZI INORI ZURE DENBORAZ ERABAKITZEN. EZ ETA ZURE DIRUAZ ERE.

lio aldaketa 3.995 pezetatik aurrera 24,01 €
Pneumatiko aldaketa 4.995 pezetatik aurrera 30,02 €

Doan, 25 punturen begizko azterketa operazio bakoitzeko
**RENAULT ZERBITZUAK**. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.

RENAULT

MECA BERGARA
Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68




**Bakarra da.**

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.

**GUIPUZCOANA**
*Paketeen Garraio eta Banaketa*

*Beti garaiz.*

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0626/2/97

IQNet
ISO 9002

www.guipuzcoana



# Su-etenaren amaiera

**Ane Miren Lizarralde**/ Kazetaria

Hamalau hilabete iraun eta ustekabean harrapatu gintuen ETAren azken komunikatuak. Gutxik espero zuten azaroaren 28an suetenaren amaierarekin esnatuko zirela, baina horrela gertatu zen joan zen igandean. Harriduraz hartu genuen gehienok berria, eta ez pertsona arrunten artean, baita gorago ere horrela hartu zuten.

Su-etenaren apurtzearen ardura ETAri dagokio soilik baina 14 hilabete hauetan alde haundia egon da batzuk eta besteek egin duten lanean. Horregatik ez da ulertzen ETAren komunikatuan kritika gogor eta zorrotzenak EAJ eta EArentzat izatea. Tregua ETAk utzi du bertan behera, eta bizi izan ditugun hamalau hilabeteak bizi izanda zaila egiten da agirian azaltzen diren esaldiak ulertzea.

Edozein kasutan, bakea bideratzeko batzuek egin duten apustuak ez du zerikusirik Madrilgo gobernuak izan duen jarrerarekin. Aurrerapausoak eman behar zirenean, Mayor Oreja "y compañia" hanka motz gelditu dira beti. Prozesu guztia zapuzten ibili dira eta zentzu honetan jaurti diren kritikak bidezkoak dira. Bake prozesuetan elkarrizketak duen garrantzia ez dute ondo neurtu oraindik, baina euskal gizarteak badu zerbait argi eta garbi: ez duela nahi aurreko egoerara bueltatzea eta aho batez eskatuko du bakea lortzeko egin behar dena egin dezaten.

Ea epe labur batean Ipar Irlandan egun hauetan bizi dutena errealitate bihurtzen zaigun. Bi prozesuak desberdinak dira, baina une latzak igarota Ipar Irlandako egoerari begiradatxo bat ematen badiogu inbidia ematen du.<

*"Edozein kasutan, bakea bideratzeko batzuek egin duten apustuak ez du zerikusirik Madrilgo gobernuak izan duen jarrerarekin"*

## barruan



**Bernabe Guridi**
Karegile izandakoa

***"Karea egitea oso lan gogorra zen, ordu asko sartu eta diru gutxi ematen zuen"***

8.



**Javier Bretaña**
Auto gidaria

***"Jaizkibelen irabazi ondoren, proba baten faltan, nire kategoriako txapelduna naiz"***

23.



**Julen Aranguren**
Euskara teknikarixa

***"Bergara geroz eta gehixau ezagutzen dot, lanian kalian ibiltzia tokatzen jatelako"***

29.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1884.*** Azaroaren 30ean Julian Tellaetxe Aldasoro pintorea jaio zen Bergaran. Oso gaztetan, itsasoak erakarrita, marinel lanetara abiatu zen Lekeitiora. Hamasei urterekin, Madrilera joan zen pintore ikasketak egitera. Itsasoa eta itsasoko bizimodua da bere lanetako gai nagusia. Brusselan, Bartzelonan, Madrilen, Parisen... erakutsi zituen koadroak. Perura joan eta bertan ondare artistiko nazionalaren zaintzaile izendatu zuten. 1957an hil zen Liman.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1919.*** Abenduaren 5ean Langarika txirrindularia jaio zen Otxandion.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1964.*** Azaroaren 30ean *Sonda II* espaziuntzia bidali zuen SESBk Martitzera.

# zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 26**
1-13-16-19-21-35 (osag.6/itz.6)

**Astelehena 29**
9-18-23-28-38-41 (osag 11/itz.7)

**Martitzena 30**
2-14-21-27-32-45 (osag.22/itz.2)

**Eguaztena 1**
7-14-17-25-33-35 (osag.19/itz.1)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 27**
2-6-14-17-30-41 (osag.28/itz.6)

**Domeka 28 *Saritzarra***
27-31-37-39-46-49 (osag.21/itz.6)

**ONCE**

**Eguakitza 26:** 22.123 (097 seriea)
**Astelehena 29:** 01.702
**Martitzena 30:** 11.031
**Eguaztena 1:** 67.399

**BESTE BATZUK**

**"Deportatu bat, Gara bat". 25.000 PTA eta Athletic-Real derbyrako sarrera:** 1.783

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Zapatuan, hilak 4, hodeitsu egongo da eguna. Euri apur bat egingo du. Elurra 1.000 metrotik gora. Haizea ipar-mendebaldetik.
Domenkan, oso hodeitsu. Egun hasieran euria. Elurra 900metrotik gora. Ipar-haizea.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: azaroak 29

Ilberri: abenduak 7

Ilgora: abenduak 16

Ilbete: abenduak 22

## Eguzkia

*Domeka, abenduak 5*

Sortu: 08:25

Gorde: 17:50

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. ºC | min. ºC | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 25** | 12 | -1 | – |
| **Eguakitza 26** | 12 | -1 | – |
| **Zapatua 27** | 11 | -3 | – |
| **Domeka 28** | 14 | 1 | – |
| **Astelehena 29** | 15 | 5 | – |
| **Martitzena 30** | 15 | 0 | – |
| **Eguaztena 1** | 11 | 1 | – |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Etxeko austrapua izan**

Etxeko guztien kulpak edo akatsak bere gainera erori.
*- I izengo aiz zuen etxeko austrapua.*




# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Izurde arrosa arriskuan

Hong Kongeko izurde arrosa, *Sousa Chinensis*, berezia da benetan. Izan ere, pigmentazio aldaketa pairatzen du bere bizitzan zehar: kolore beltzekoa izaten da hasieran eta urteak aurrera joan ahala, azalaren kolorea argitu egiten zaio, arrosa bihurtu arte. Independentziaren eta kolonia ohiaren sinbolo hau, itsasoko kutsadura eta neurrigabeko arrantzak desagertarazi egin lezakete.

## Farmaziak

**Eguakitza 3:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Zapatua 4:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Domeka 5:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Astelehena 6:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Martitzena 7:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguaztena 8:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Eguena 9:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

## Ogia

**Domeka 5:** Konde.
**Astelehena 6:** Mizpildi.
**Eguaztena 8:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak



**Maider Azkarate**
Abenduaren 4an 18 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Julen Azkarate**
Abenduaren 8an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



**Iñaki Arrieta**
4an 26 urte. Muxu handi-handi bat gure boom mutilari! Koadrilakoak.



**Maite Mira**
Abenduaren 3an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.

*hurrengo alean,* ***ABENDUAREN 17a** eta **23a*** *bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*



**Nerea Agirrezabal**
Abenduaren 9an 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Nerea Alberdi**
Abenduaren 6an 12 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Nagore Leonet**
Abenduaren 15ean 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Txomin Larrañaga**
Abenduaren 11n 4 urte. Urte askotarako! Martin.



**Aritz Arrillaga**
Abenduaren 4an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta batez ere Jon.



**Uxue Murgiondo**
Abenduaren 4an 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Mireia Arana**
Abenduaren 5ean 3 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta lagunak.



**Mari Karmen Garcia**
11n urteak. Urte askotarako! Familiakoak eta lagunak.



**Unai Egaña**
Abenduaren 7an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Eneko Egaña**
Abenduaren 9an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Alazne Roman**
Abenduaren 9an 6 urte. Urte askotarako! Iokin, Amagoia eta etxekoak.



**Nerea Etxezarreta**
Abenduaren 6an 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Lierni Domenech**
Abenduaren 12an 14 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Aitor Zengotitabengoa**
Abenduaren 13an 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Irati Cuevas**
Abenduaren 13an 10 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Iria, Elena eta Pello.



**Maialen Zangitu**
Abenduaren 4an 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Garazi Ibarra**
16an urtebete. Urte askotarako eta muxu bat! Etxekoak eta lehengusuak.



**Itziar Murgizu**
Abenduaren 4an 40 urte. Urte askotarako! Lagun "on"bat.



**Saioa Agirre**
Abenduaren 9an 4 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Ana Zafra**
Abenduaren 10ean urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.

*URTEURRENA*

## Jose Umerez Guridi



Lehen urteurreneko meza datorren domekan, abenduak 12, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Asier Zubia Gutierrez**
Azaroak 21

**Amaia Ruiz Diaz**
Azaroak 25

**June Lopez Larrañaga**
Azaroak 25

**Beñat Loidi Aizpuru**
Azaroak 27

## hildakoak

**BERGARA**

**Ramon Etxeberria Ostolaza**
Azaroak 24, 74 urte

**Nikolas Azkona Gomez**
Azaroak 26, 70 urte

**Jose Maria Agirre Azkarate**
Abenduak 1, 68 urte

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaieg.:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunak:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.

**Bergara-Bilbo.** *Laneg.:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaieg.:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

# ANTZERKIA

▶ **Euskal Antzerki Topaketak** Azpeitian; Hika taldearen **"EuskalOFF 2050"** azken lanaren estreinua, gaur, eguakitza, 21:30etan Zelaitxo antzokian. Bihar, zapatua, Bordatxuri taldearen **"Lur ezpalak"**, ordu eta toki berean.

▶ **"Dama eta Kardinala"** gaur, eguakitza, 22:30etan Oñatiko Santana antzokian.

# MUSIKA

▶ **Bergarako Musika Eskolako** kontzertua Raul Luqueren alde, gaur, eguakitza, 19:00etan Udal Pilotalekuan.

▶ **Coro de la Hermandad** de Nuestra Señora del Rocio de Espartinas zapatuan, hilak 4, 20:00etan Santa Marinan.

▶ **Jam**. Datorren eguakitzean, hilak 10, **Apolo Four Forty** taldea, hilaren 17an **Sin City Six** eta abenduaren 18an **Loquillo**.

▶ **Bat Bitten** taldea gaur, eguakitza, 23:00etan Elorrion.

▶ **Ur Klang** soka-laukotea, hilaren 11n 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan.

KONTZERTUA

## *Enrique Bunbury*

**Non:** Jam aretoa
**Noiz:** astelehenean, abenduak 6, 22:00etan
Sarrera: 2.300 PTA takilan; 2.000 PTA aurrez.



Iaz ere bisitari izan genuen Enrique Bunbury.

"Heroes del silencio" taldearekin izugarrizko arrakasta lortu ondoren, Enrique Bunburyk bere bakarkako ibilbideari ekin zion duela hiru urte, Zaragozako taldea desegin ondoren. Astelehenean, Bergaran, "Pequeño cabaret ambulante" bere bigarren eta azken diskoa aurkeztuko du. Aurretik, 1997ko abuztuan, kritikak harrera beroa eskaini zion "Radical sonora" bere lehenbiziko lanari. Orduan kaleratutako "Salome" izenburuko singleak Bunburyk landutako soinu berriak biltzen zituen eta musika adituek electro-rock estilotzat definitu zuten Bunburyk hartutako bide berria. Oraingo hau, rockero mañoak Bergaran eskaintzen duen bigarren kontzertua izango da, iazko otsailaren 8an bere lehenbiziko lana aurkezten egon baitzen. Ikusle gehiegi bildu ez ziren arren, bertaratuek Bunburyren zuzeneko emanaldien indarra frogatzeko aukera izan zuten orduan.

Bunburyk autodidaktatzat du bere burua eta, munduan zehar egindako bidaietan, Kuba, Maroko edota Indiako soinuen eragina jaso du. Era berean, abestietako hitzek ere berebiziko garrantzia dute bere abestietan eta idazle erromantikoak (Wilde, Byron), sinbolistak (Baudelaire, Rimbaud) edota Estatuko hainbat poeten letrak (Alberti, Angel Gonzalez) erabili ditu. "Pequeño" bere azken lanak oihartzun handia izan du musika aldizkari espezializatuetan eta hor dira, besteak beste, "El extranjero", "Luna", "Feliz año", "Voy a perder la cabeza por tu amor" edota "El jinete" izenburuko kantuak, astelehenean Jamen entzun ahal izango direnak.

# ERAKUSKETAK

▶ **Filatelia** eta Numismatika taldearen erakusketa abenduaren 4tik 12ra bitartean Kultur Etxean.

# IKASTAROAK

▶ **Gorputz adierazpeneko** ikastaroa, 13-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta, Udaleko Gizarte Ongizate Departamentuak antolatuta. Ikastaroa Virago antzerki taldeak emango du, abenduaren 27tik 31ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara Zabalotegiko lokalean. Izenematea doan izango da eta interesatuek Kultur Etxera jo dezakete, abenduaren 13tik 23ra bitartean.

▶ **ICTEren "Dementzien psikoestimulazioa"** ikastaroa abenduaren 13tik 17ra bitartean, 15:00etatik 19:00etara Arrasaten. 943 77 16 99.

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak
PENTSUAK Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

# DEIAK

▶ **"Kalera, kalera"** lemapean HBk deitutako manifestaldia bihar, zapatua, 17:30etan Bilbon. Bergaratik autobusak 16:00etan aterako dira Frontoitik. Izen-ematea Arranon.

▶ **Alargunen** elkarteko kideen urteroko bazkaria izango da abenduaren 8an Antxoni jatetxean. Interesatuek elkartean bertan eman dezakete izena.

▶ **Hitzaldia**: Komite Internazionalistak taldearen eskutik, **Mertxe Brosak**, Nikaraguako Malpaisillo hiriko emakume nekazarien zentroaren arduradunak hitzaldia emango du datorren egunean, hilak 9, 19:30etan Kultur Etxean.

▶ **EAJ**. Uri Batzarra datorren eguenean, hilak 9, 19:30etan Batzokian. Alderdikide guztiei beratara joateko deia egiten zaie.

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilaren 15ean, 18:30etan.

▶ **Eguberriak programa**, 65 urtetik gorakoentzat, baldin eta bakarrik bizi badira edo bikotea osatuta ere bakardade arazoak badituzte. Gabon Eguna eta Eguberri Eguna Urdanibia hotelean igarotzeko aukera izango dute. Eskaerak egiteko azken eguna abenduaren 10a izango da. Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

▶ **Bergarako Batera** plataformaren enkarteladak, euskal presoen eskubideen alde, gaur, hilak 3, eta abenduaren 17an, 20:00etan San Martin plazan.

# OHARRAK

▶ **Seaskako egutegiak** 400 pezetan salgai daude Jardun elkartean eta Aranzadi Ikastolan. Jasotako dirua Nafarroa eta Iparraldeko ikastolen alde izango da.

# KINTADAK

▶ **1936an jaiotakoen bazkaria** abenduaren 11n Antxoni jatetxean, 14:00etan. Izen-ematea Antxonin edo Eusebio II tabernan.

▶ **1938an jaiotakoen bazkaria** abenduaren 11n Pertxa elkartean. Aurretik bisita gidatua egingo da. Izen-ematea 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) eta 943 76 42 08 (Juan Alkorta) zenbakietan.

▶ **1977an jaiotakoen bazkaria** abenduaren 18an Zabala jatetxean. Izen-ematea Etxagi tabernan (1.000 pezetako aurrerapena).

▶ **1981n jaiotakoen bazkaria** abenduaren 24an Jam aretoan. Aurretik, goizeko 8:00etan, abesteko elkartuko dira Zabala jatetxean. Bazkarirako izen-ematea Jamen abenduaren 22ra arte izango da zabalik.

# Z I N E A

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**
**La hija del general**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
**El guerrero nº 13**
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 22:30.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.
**Cuando vuelvas a mi lado**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**
**De ladron a policia**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
**El proyecto de la bruja de Blair**
Astelehena: 19:30, 22:00.
Martitzena: 19:30, 22:00.
Eguaztena: 19:30, 22:00.
**Mi marciano favorito**
Astelenetik eguaztenera: 17:00.

**EIBAR. Unzaga**
**Asterix y Obelix contra Cesar**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Agnes Browne**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
**El guerrero nº 13**
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Cookie´s fortune**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ELORRIO. Arriola**
**Novia a la fuga**
Zapatua: 20:00.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
**El arbol de las cerezas**
Eguaztena: 20:00.
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**LA HIJA DEL GENERAL**
**Zuzendaria:** Simon West.
**Aktoreak:** John Travolta, Madeleine Stowe, James Cromwell.
*Paul Brenner* ofiziala (Travolta) Estatu Batuetako ejerzitoan gertaturiko korrupzio kasu bat aztertzen ari denean, baldintza arraroetan *Elizabeth Campbell* kapitaina hiltzen dutenean. *Sunhill* (Stowe) ikertzailearen laguntzaz, *Brenner*ek gertatutako guztia argitu beharko du...

**EL GUERRERO Nº 13**
**Zuzendaria:** John McTiernan.
**Aktoreak:** Antonio Banderas, Vladimir Kulich, Omar Sharif.
John McTiernan zuzendariak akzioz beteriko filmeak egin izan ditu (*Jungla de cristal, A la caza del octubre rojo*). Oraingo honetan, Michael Crichton idazlearen best-sellera oinarritzat harturik, bere herrialdetik kanporatua izan den *Ibn Fahdlan* (Banderas) gudariaren abenturak dakarzkigu.

**CUANDO VUELVAS...**
**Zuzendaria:** Gracia Querejeta.
**Aktoreak:** Mercedes Sampietro, Jorge Perugorria, Julieta Serrano, Adriana Ozores.
Elias Querejetaren alabak zuzentzen duen hirugarren filmea azken Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen eta sariren bat jasotzeko faboritoen artean izan genuen. Hil berria den amaren hileta elizkizunetarako berriro elkartzen diren hiru ahizpen gorabeherak kontatzen dira.

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Mujika gozotegia
Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Matxiategi Elektragintza S.L.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

**Bernabe Guridi, 74 urteko oñatiarra dugu, Estenaga baserrikoa. Urte askotan jardun zuen karea egiten, eta joan zen eguakitzean izan zen karegintzari buruzko tertulian parte hartu zuen Kultur Etxean beste karegile batzuekin batera.**

# BERNABE GURIDI
## Karegile izandakoa

## "Karea egitea oso lan gogorra zen, ordu asko sartu behar izaten zen"


Urte askoan izan da karegilea Bernabe Guridi oñatiarra.

**G.** Noiz hasi zinen karegintzan? Nork irakatsi zizun?

**E.** Soldaduzkatik itzuli nintzenean hasi nintzen, 1948. urtean. Aldameneko baserrikoa nire aldean zaharra zen, eta karegintzan asko ibilitakoa zen; hark irakatsi zidan, eta biok batera ibili ginen urte batzuetan.

**G.** Azalduko al zeniguke labur-labur zein prozesu jarraitzen zen karea lortzeko?

**E.** Garai honetan, azaro edo abendu inguruan, sua egiteko beharrezko zen egurra bildu behar izaten zen; horrela, apirilerako lehortuta egoten zen, erretzeko gertu. Normalean, apirila inguruan egiten zen karea, gero lan asko izaten zen eta baserrietan. Gurdian ekartzen genuen karearria kanteratik karobiraino. Hiru edo lau egunean eduki behar izaten zen erretzen harria, eta gu bertan egon behar izaten ginen gau eta egun, txandaka, etengabe eman behar izaten baitzitzaion egurra, sua ez moteltzeko. Guztiz hauts bihurtu baino lehen ateratzen genuen karea, bestela gurdiaren mugimenduekin kare asko galtzen zen bidean. Karobiak basoan egoten zirenez, karea baserrira ekartzeak ematen zigun lanik handiena; horregatik, auzolanean egiten zen lan hori, elkarri laguntzen genion afaritxoren baten truke.

**G.** Zergatik galdu zen karegintza tradizionala?

**E.** Karea egitea oso lan gogorra zen, ordu asko sartu behar izaten zen eta diru gutxi ematen zuen. Garai hartan, gainera, gero eta gehiago lantegietan hasi zen jendea lanean, baserrian baino lan errazagoa baita, eta dirua ere errazago irabazten baita. Bestalde, karea eginda saltzen zen, eta askoz erosoagoa eta merkeagoa zen baserritarrentzat karea erostea.

**"Hiru edo lau egunean eduki behar izaten zen erretzen karearria, eta gu bertan egon behar izaten ginen gau eta egun, txandaka"**

**G.** Zertarako erabiltzen zen karea?

**E.** Gauza askotarako erabiltzen zen karea, ez bakarrik eraikuntzarako. Batez ere soroan erabiltzen zen ongarri bezala, eta uztei kalte egiten zieten zomorroekin bukatzeko. Gero, animalien hanketako gaixotasunak sendatzeko ere oso ona zen. Etxekoandreek ere erabiltzen zuten, urarekin nahastu, letxada egin eta bertan sartzen zituzten arraultzak kontserbatzeko. Desinfektatzaile bezala ere erabiltzen zen; ikuiluko ate parean sendo botatzen zen, eta bertatik pasatzen zenak hankekin zapaldu eta etxe guztian zehar zabaltzen zuen. Tifusa eta beste gaisotasun batzuen kontra erabili izan zela ere entzunda daukat, baina nik ez dut hori ezagutu.

**G.** Norenak izaten ziren karobiak?

**E.** Baserritarrenak. Nik beti ezagutu izan ditut karobiak basoan, bai egurra eta baita karearria ere gertuago edukitzearren. Baina, aintzina, baserri bakoitzak bere karobia izaten zuen etxe inguruan, eta karobirik ez zutenei utzi egiten zitzaien karea egin zezaten.

**G.** Zer iruditzen zaizu egin beharko litzatekeela geratzen diren karobiekin?

**E.** Hori ez dago gure esku. Lehen esan dudan bezala, lan gogorra da karegilearena, eta ez dut uste gaur egungo gazteek interes handiegirik daukatenik. Gainera, asko kostako litzateke inguruko karobiak berriztatzen hastea. Hala ere, baserri inguruetan daudenak berriztuta ikustea gustatuko litzaidake; jende asko pasatzen den inguruetakoak berriztu beharko lirateke, jendeak, karobiak nolakoak ziren eta karea nola egiten zen ikusi dezan



Udal gobernua osatzen duten alderdi abertzaleek bat egin zuten Udalbiltzaren asmoekin. ARTXIBOA

# Udalbiltzaren helburuekin bat egitea onartu zen Plenoan

## Su-etenaren amaierak ez du eraginik izango udal gobernuan

**Asteleheneko Plenoan, EAJ-EA eta EHko zinegotzien aldeko botoekin, Udalbiltzaren sorkuntza eta helburuekiko atxikipena onartu zen aho batez, PSE eta PPko zinegotziak ez baitziren batzarrean izan.**

Euskal Herriko udalen arteko harremanak sakontzeko, senidekitzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko asmoz sortu zen Udalbiltza. Joan zen irailaren 18an Euskal Herri osoko 1.800 alkate eta zinegotzi inguru bildu ziren Bilbon eta udal oinarria duen erakunde nazionala sortu ondoren, bost lantalde eta batzorde iraunkorreko kideak izendatu ziren. Erakunde honen adierazpen politikoan jasotzen denez, "lehen euskal erakunde nazionala sortu dugu. Udalbiltzak Euskal Herriaren lurraldetasuna adierazten du, nazio moduan aritzeko aukera eskeintzen digu eta nazio bezala munduaren aurrean agertzeko era ere bai. Euskal herritarrei eta udal ordezkari guztiei luzatzen diegu gonbidapena Euskal Herriaren une historiko honetan parte har dezaten". Plenoan Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea Bergarako Udalak bere egitea onartu zen. Astelehenoko batzarrean argi geratu zenez, ETA erakundeak iragarritako su-etenaren amaierak ez du oraingoz behintzat eraginik izango EAJ-EAk eta EHk osatutako udal gobernuan.

### OSINTXUKO TXEKORRA

Bestalde, ANPBA animalien aldeko erakundeak Osintxuko Kofraixetako txekorraren sakrifizio publikoaren gainean egindako salaketaren aurrean Udalak zer nolako aktuazioak egin dituen jakin nahi izan du Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro departamentuak. ANPBA erakundeak alkatearen kontrako salaketa jarri zuen joan zen abuztuaren 28an Osintxuko txekorraren sakrifizioaren ikuskizun publikoa onartzeagatik eta, era berean, txekorra hil zuten Rosario Vaqueriza eta Rafael Zabaleta ere salatu zituen. Alkateak adierazi duenez, Udalaren kontrako salaketa Diputazioaren esku dago eta partikularren kontrakoekin tramiteak aurrera doaz.

## Gabonetako argiak eta eskaparateak

**Nafarroako** Ilanor enpresari adjudikatu dizkio Gabonetako argiak jartzeko lanak Kultur, Gazteria eta Jai Batzordeak. Aurrekontua 3 milioi pezeta ingurukoa da eta Gabonetako argiak abenduaren 18tik urtarrilaren 5era arte egongo dira piztuta ondoko tokietan: Plazan, Bidekurutzetan, Espoloian, San Pedro kalean, Artekalen, Arrurriagan, Fraiskozurin, Barrenkalean, Oxirondoko azokan, herriko sarreretan eta Osintxu, Angiozar, Elorregi, Ubera eta Elosuko auzoetan.

Bestalde, herriko dendariek parte hartuko dute abenduaren 15etik 29ra bitartean Udalak deitutako eskaparate lehiaketan. Bergarako Udalak 25.000 pezetako bost sari banatuko ditu abenduaren 24an.

## Organu emaileak Fraiskozurin

**Bihar**, zapatua, ATCORE Euskadiko bihotz transplantatuen elkarteak mahai informatiboa jarriko du Fraiskozurin, herritarrak organu emaile izatearen garrantziaz kontzientziatu nahirik. Mahai informatiboa 11:00etatik 15:00etara jarriko da Fraiskozurin eta ATCOREk herritarrei bertara hurbiltzeko deia egiten die.

Azken datuen arabera, Euskal Herriak organu emaile kopururik altuenetakoa du Europa mailan gaur egun.

# Beheko Estazioaren aldeko taldea Patxi Ormazabal kontseilariarekin bildu da

## Zapatuan firma bilketa berria egin eta prentsaurrekoa eskaini zuten

**Kapirixok eta Euskal Herriko ferrokarrilaren aldeko bost elkartek Beheko Estazioaren indultua lortzeko lanetan jarraitzen dute. Zapatu eguerdian firma bilketa berria egin zuten San Martin plazan eta pentsaurrekoa eskaini zuten Kultur Etxean.**



Eguren tailerra azaroaren 19an bota zen eta bertan kokatuko da autobus geltokia probisionalki.

Anaje Narbaiza Kapirixoko kidearen hitzetan, "Beheko Estazioa mantentzeko borondate politikoa botatzen dugu faltan. Badakigu ez dela erabaki erraza baina hor dago arau subsidiarioak aldatzeko aukera. Epe erdi eta luzerako perspektiba izatea beharrezkoa ikusten dugu, eraikuntzaren kostua errentabilizatu ahal izateko. Ez dugu uste Udalak adierazi duen moduan, operazioaren kostua 800 milioi pezetakoa denik". Geltokiaren aldekoek 1.800 sinadura inguru batu dituzte eta, besteak beste, Nafarroako kultura kontseilaria eta Arabako eta Gipuzkoako kultura diputatuen atxikimendua jaso dute.

Aste honetan bertan, martitzenean, Beheko Estazioaren aldeko plataformako kideak Patxi Ormazabal Hirigintza kontseilariarekin bildu dira. Patxi Ormazabal plataformaren proposamenak aztertzekotan geratu da. Eskoriatzatik Debara bitartean, Debarroa zeharkatuko lukeen tranbia jartzeko proiektua aztertzen ari da Jaurlaritza eta, Kapirixokoen arabera, hasiera batean, lehengo trenbidearen zati bat eta eraikuntzetako batzuk mantenduko lirateke proiektuak aurrera egitekotan.

### PROPOSAMENAK

Zapatuan alkateari aurkeztutako idatzian, plataformak trenak Deba Garaiko garapen industrialean izan duen garrantzia azpimarratzeko Beheko Estazioan ikerketa zentru bat edo museo bat jartzea proposatzen zuen. Era berean, zentru turistiko izateko duen kokapen ezinhobea ere jasotzen zen eta baita, lehengo trenbidearen esanahi historikoa galdu barik, bertan goian aipatutako tranbiaren geltokietako bat jartzeko aukera ere; "estaziñua babestea eta gai hau berriro aztertzea eskatzen diogu Udalari, duen garrantzia estrategikoagatik eta aurrerantzean damutu ez gaitezen Beheko Estaziñua botatzearen erabakiaz". Dena den, Udaleko Obra eta Hirigintza Batzordeak baimena eman du honez gero edifizioa botatzeko. Behin behineko autobus geltokia martxan jarritakoan botako litzateke estazioa, kontrako erabakirik hartzen ez bada.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

izeder
ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak
943 76 71 05. Arruriaga 2

PISZINETAKO
TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g ☎ 943 76 07 92

# Herritarrek eta hainbat kolektibok hartu zuten parte zapatuko Konpromiso Egunean

**Hainbat** herritarrek eta kolektibok bat egin zuten zapatuan Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Euskal presoak Euskal Herrira, Senideak eta Bergarara Plataforma taldeek deitutako Konpromiso Egunarekin. Antolatzaileen arabera, deialdiaren helburu nagusiak presoen borrokarekin bat egin, presoei elkartasuna adierazi eta presoen arazoaz herria kontzientziatzea ziren. Preso ohiek irakurritako komunikatuak eman zion hasiera Konpromiso Egunari goizeko 11etan eta, ondoren, egun guztian zehar eta gauerdira bitartean, herriko taldeen partaidetzarekin enkartelada iraunkorra izan zen San Martin plazan. Alderdi politikoak, sindikatuak, kirolariak, tabernariak, dendariak, udal langileak edota irakaskuntza eta euskararen munduko ordezkariek hartu zuten parte aipatutako enkarteladan eta, eguraldi hotza berotzeko, dantzari, bertsolari, abeslari eta pailazoen saioak tartekatu ziren. Arratsaldeko 19:30etan, berriz, manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetan. Gauerdiko 12etan Konpromiso Egunari amaiera eman zitzaion suziriak jaurtiz.




Antolatzaileak oso pozik azaldu dira zapatuan jasotako erantzunarekin: “Konpromiso Egunean parte hartu zenuten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, presoek daramaten borrokarekin bat egiteagatik. Hala ere, presoek gose greba aurrera daramate eta hemendik aurrerako lana ezinbestekoa izango da. Beharrezkoa ikusten dugu presoak kalean egotea gatazka honetan parte hartzen, erabakietan parte hartuz; oso garrantzitsua da herritar guztiok mugitzea aipatu dugun gatazka honi konponbidea emateko. Bestalde, zuen agurrak bidali dituzuen presoei eta bidali ezin izan dituzuenoi, besarkada handi bat eta muxu bero bana”.

Dantza eta dibertsioa
JOSTUNEN
FESTA GAUA
abenduaren 11n, zapatua

• *3 mutil eta 6 strip-tease*
• *Umorea eta ikuskizuna*
• *Karaokea*
• *Gaueko 12:30etarako ateak zabalik*
• *Sarrera eta kontsumizioa: 1.000 PTA*



Laguntzailea:
CAVA
O.R.
Oriol Rossell

Jam
Santalaitz 5. 943 76 35 81

Egin hadi Jam aretoko bazkide!
2000 urterako sarrerak 3.000 pezetaren truke!

# Berrigara

390 zenbakia.
1999ko abenduaren 3a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Tere Madinabeitia, Aintzane Irizar.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Maripi Laskurain.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Benito Cantero.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** · **Gipuzkoako Foru Aldundia** · **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### EUSKARA EPAITEGIETAN

Euskal Autonomi Erkidegoan Autonomi Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu eta 20 urte igaro ondoren, oraindik orain, justizia administrazioan euskaldunon eskubideak ez dira bermatzen. Euskaldunak bigarren mailako pertsonak gara epaitegietan.

Horren islada da gaur egun Hego Euskal Herriko epaitegietan bizi dugun errealitatea. Bertan kokaturiko 210 epaile zein magistratuetatik 13 dira euskaldunak, fiskaltzari dagokionez, 74tik 3, eta funtzionarioei dagokienez %14 inguru. Bergarako epaitegiari dagozkion 49.000 euskaldun eta 12.000 ia euskaldunentzat, %63a, ez dago epaile euskaldunik.

Badaude batzuk euskara ikasten, baina hala ere badirudi borondatezkoa dela, izan ere eta adibide gisa, hor dago Francisco Javier Perez Olleros Sanchez-Bordona epailea, euskaraz ikasteko intentzio barik. Eta hori gutxi balitz, euskaraz deklaratzea eskatzeagatik eta euskararen gaia kaleratzeagatik abokatuei garraxi egin, epaigelan atxiloketak agindu... egin ditu.

Ulergaitza da Euskal Autonomi Erkidegoan euskara "ofiziala" izanik, Bergarako epaitegian hainbeste euskaldunentzat epaile euskaldun bakar bat bera ere ez egotea. Zer esango lukete Madrilen alemana soilik dakiten epaileak izendatuko balituzte?

Egun euskaldunok ez dugu hizkuntz eskubide kolektiborik eta azken batean, euskararen patua gehiengoaren borondate librea omen delakoaren menpe jarri dute. Denbora, ordea, gure kontrako faktore indartsu bihurtu da. Euskaraz bizi nahi badugu behintzat, guztion indarrak batu eta euskaldunon eskubideak bermatuko dituen justizia-administrazioa eraiki behar dugu. Bigarren mailako pertsonatzat edukiko ez gaituen justizia.

Eraiki dezagun gaurdanik, Euskal Herri euskalduna.

*Bergarako EHE*

### BATERA PLATAFORMA

Bergara, 1999ko azaroak 30

Bergaran Batera plataforma eratu berri dugu. Plataforma honen zeregin nagusia euskal presoen eskubideak defendatzea da. Beraien izaera politikoa errekonozitua izan dadila eta berez dagozkien eskubideak ez daitezela unean uneko politikaren menpeko bilakatu, argi izanik, euskal presoak bakebidetze prozesua aktibatzeko eta azkartzeko zuzpergarri aparta direla.

Helburu nagusi hauekin Gasteizen eginiko bilkuran plataforma honen izate eta lan ardatz nagusiak jaso ziren. Bergarako Batera osatzen dugun taldeok deia luzatzen diogu herri osoari "Euskal presoen eskubideen alde" lemapean egiten ditugun ekintzetan parte hartzeko. Lehena gaur, ostirala, abenduak 3an egingo den enkartelada izango da, 20:00etan herriko plazan eta hurrengoa abenduaren 17an, ordu eta toki berean. Abenduaren 31n, berriz, manifestaldi ixila egingo da herriko kaleetan 18:00etan.

Euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen herri guztiaren parte hartzea ezinbestekoa delako, eta orain, inoiz baino indar gehiagoz elkarlanean aritu behar dugulako, gure gonbitea esku zabal hartuko duzuelakoan.

*Bergarako Batera*
*Parte hartzaileak*
*EAJ, EA, EH eta IU, ELA, LAB eta EHNE, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Senideak, Bergarara Plataforma*

**OHARRA**
Datorren eguakitzean, abenduaren 10ean, ez da BERRIGARArik banatuko. Hurrengoa, 391 zenbakia, abenduaren 17an argitaratuko dugu.
Berrigara

## tira biraka: **gorka ortega & jon alvarez**



atrebentzia ezpada

## Gabonetako loterixia asko erosten dau jentiak. Zuk zeuk badaukazu erosteko ohitturaik?



**Tere Delgado**

Bai eta aurten be hasi naiz, baiña daukat ohitturia erosteko dezimo bat eta hori oinddiokan ez daukat erosita.



**Sonia Cachafeiro**

Astero erosten dot, beti numero bat, eta Gabonetan be bai. Aurten Cordobatik be ekarri dot.



**Engracia Jimenez**

Bai eta erosi dot aurtengua. Baiña nik Gabonetan bakarrik erosten dot, urtian zihar ez.



**Juan Karlos Sarasketa**

Oinddiokan ez dot erosi, baiña egun batzuk barru erosiko dot, hiru edo lau dezimo.



**Inazio Bilbao**

Erositta daukat baiña baten bat gehixau be jausiko da oinddiokan parian kuadrillako batek erosten badau. Erregetarako be erosiko dot.



**Migel Angel Perez**

Nik kuadrillakoekin erosten dot normalian. Kanpora juten banaiz ta norbaittek enkargatzen badost, orduan be bai.

bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### SANTA MARINA ONDOKO PLAZATXOA

**Consuelo Ibarra**k deitu zigun joan zen astean, Oxirondo merkatuaren ondoko plazatxoaren egoera salatzeko. Santa Marinako atzealdea eta Katabia bitartean dagoen plazatxo hori (garai batean idi probak egiten ziren bertan) txukuntzeko proiektua onartuta egon arren, oraindik ez dela ezer egin esan digu Consuelok. Aipatutako lanak aurten egingo zirela agindu ei zion alkateak Consuelori. Azken asteotan, eurien ondorioz, lokatzez beteta izan da plazatxoa eta Consuelori ez zaio bidezkoa iruditzen oraindik ere konpontzeko neurririk ez hartu izana, bada eta urte mordoxka plaza egoera horretan dagoena.


Agirrebeña



JATETXEA

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Am•Ma

ERROPAK • OINETAKOAK • MARKA ONENAK

Abenduaren 17an
INAUGURAZIOA
11:00etatik 13:00etara
Bergaran

San Pedro 10 Bergara. 943 76 07 47

adituen esanetan

# Elikagai transgenikoak

Genetikoki aldaturiko jakiei dagokie *elikagai transgeniko* izena, eta gutxienez ADN-r bidezko teknikekin lorturiko osagarri bat daramate. Gizakiak aspaldi ekin zion animalia eta landareen ondare genetikoa aldatzeari, etekin handiagoko arraza eta barietate berriak lortuz. Ausazko teknikak erabiliz konbinazio genetiko aproposa bilatzearen probabilitatea bajua bada ere.



NOELIA ALDAI

*Nekazal industrietako injinerua*

*"Gizakiak aspaldi ekin zion animalia eta landareen ondare genetikoa aldatzeari, etekin handiagoko barietateak lortuz"*

Jaki transgenikoen diseinuan injinerutza genetiko bidezko teknikak erabiltzen dira; non indibiduo emailearen genomatik interesatzen den genea (karaktere hereditarioen baldintzatzailea) isolatu, *in vitro* aldatu eta indibiduo berberaren edota organismo hartzailea den animalia, landare edo mikroorganismoaren genoman sartzen den. Kasu batzuetan nahikoa izaten da aldatu nahi den ezaugarria kodifikatzen duen genearen espresioa galerazi edo zailtzearekin. Beraz, bioteknologia tradizionalaren bitartez lorturikoen eta jaki transgenikoen arteko ezberdintasuna erabilitako tekniketan datza.

Hiru sailetan bana daitezke elikagaiok: alde batetik lehengai edo primarioak; animalia eta landare jatorrizkoak. Landare jatorrizkoekin lortu nahi diren helburuak karakteristika agronomiko (intsektuei, herbizidei... erresistentzia), elikagarritasun (aminoazido eta gantz azido asegabeen gehitzea, alergenoen gutxitzea) eta prozesatze kalitatearen (heltzearen atzerapena, almidoiaren igoera...) hobekuntza dira batipat.

Animalia jatorrizkoekin ordea, produktibitate eta esnearen propietateen hobekuntza eta botiken produkzioa dira helburu. Laktosa kontzentrazio bajudun behi-esnea adibidez (merkaturatugabea). Bestalde, nolabaiteko prozesu teknologikoa jasan duten elikagaiak daude; organismo transgeniko bitartez lorturiko osagairen bat daramatenak alegia. Adibide garbia soja transgenikotik lortutako lezitina daramaten txokolateak. Eta azkenik, legama eta bakterio transgenikoen bitartez hartzidura jasan dutenak. Ardoa eta garagardoa adibide gisa (merkaturatugabeak).<




Jaki transgenikoen diseinuan injinerutza genetiko bidezko teknikak erabiltzen dira.

bergarako gordailutik

## PINTURA KOADRO ONAK

**Imanol Sorondo**

Pintura koadroei buruz bi xehetasun ipini nahi nituzke; biak San Pedro elizakoak. Sakristiako ate aurretik, eskubiko horman koadro handi bat dago, Jesusen Jaiotzarena, joan etorrian, ondotik hainbestetan igaro ondoren, argi gehiegirik ere ez dauka, agian ez gara konturatu zeinen ederra den. Bost urte dira, bertatik bertara eta argi askorekin, ondo baino hobeto ikusteko aukera izan genuela Donostiako Eleiz Museoan, Jaiotzari buruz eginiko erakusketan. Ribera pintore ospetsuarena omen dela diote. Ez dauka firmarik, baina erakusketa horretan jende gehiena gelditzen zen astiro ikustera.

Izan liteke Riberarena, eta ez bakarrik argi-itzalak berari dagokion modura erabiltzen dituelako, edo pertsonen kokapena eta egokiera artistarenak direlako, eta pieza dena oso ona delako; ipini nahi dudan xehetasuna hau da: 1658. urtean 8 erreal eman zizkioten Larreatar Joseri koadroa ipintzeko erabilitako burni batzuengatik eta egindako lanarengatik. Kontuan harturik Ribera 1652.ean hil zela, asko hurbiltzen gara berarengana; gutxienez, koadroa garai horretakoa da eta, orduz gero, gure elizan dago.

Bigarrena, poliptikoa da, koadro ugariz egindako erretaula; sakristian dago eta zapi batek estaltzen du gehienetan. Hemen ez goaz bere kalitateaz ezer esatera; bakarrik zati bat, behekoa, Bruselaseko Europalia erakusketara eramana izan zela, Estatuko beste lan batzuekin aukeratua 1985. urtean. Ipini nahi dudan xehetasuna hau da: 1657. urtean 20 erreal eman zizkioten Ibarratar Andresi sakristian horma ireki eta San Migelen erretaula ipintzeko, eta beste 2 erreal Larreatar Joseri sendotzeko erabilitako burniengatik. Kontuan hartu behar da urte bat lehenago bukatu zutela San Migel beraren zurezko erretaula berria eta oraintsu ipini zutela zaharraren ordez.

Badirudi, urteei begiratuta, sakristian ipinitako San Pedro elizan zegoen San Migelen erretaula zaharra dela, "poliptikoa", eta ez dirudiela San Migelen ermitatik ekarria izan zenik, inoiz esan izan den bezala.<





# Gaztainerre jana euskal giroan

**AEK, Jardun eta Udal Euskaltegiak** antolatuta, gaztainerre jana izan zen joan zen domeka arratsaldean San Martin plazan. Ehun kilo gaztaina erre eta jan ziren eta, hori gutxi balitz, han izan ziren trikitilariak eta abeslari talde bat giroa alaitzen.



# *Mariskada ederraren zozketa*

*Joan zen zapatuan, Konpromiso eguna zela eta, Senideak, Amnistiaren aldeko Batzordeak eta Bergarara plataformak antolatuta,* ***mariskada*** *bat zozketatu zuten. Zenbaki saritua* ***1.655*** *izan zen, eta argazkian ikus daitekeen moduan pozik geratu zen* ***Pedro Garitano*** *irabazlea.*

# 1953 eta 1959koen afariak





ARGAZKIAK: KIÑU

Azkenaldian **kintada ugari** izan da Bergaran. Horren adibide, honako bi hauek. Joan zen zapatuan, hilaren 20an izan zuten afaria, Tartufon 1953koek (gainean), eta Antxonin 1959an jaiotakoek. Kuadrila ederra elkartu zen bietan ere, eta aparteko giroan ibili ziren.

**MUJIKA**
**Jantzidenda**
Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

**ARRI**
**Industri hornidura**
Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

**etxalar**
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
943 76 50 68

PANADEROKUA
JATETXEA
*Asteburuetan bertako babak eta saiheskia*
SALBADOR 10 **ELGETA**
TF. 943 76 82 73

## Bergarako

# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio** (Granjako **animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXEA, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 58

■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 48. zenbakia. 1999ko abenduaren 3a.*

# Mexiko eta Antzuola bat eginda

## Mexikotik hamasei gazte etorri dira Antzuolara lanera

**Joan zen ekainaren batean iritsi zen lehenengo mexikarra herrira. Oscar Tellez da bera. Hasiera batean sei hilabeterako etorri bazen ere, bera da denbora gehien daramana herrian. Gaur egun hamasei mexikar ari dira Elayn lanean. Gazteenak hemeretzi urte ditu.**





*Hemeretzi eta hogeita hamahiru urte bitartekoak dira.*

Celaya estatutik etorri dira gehienak. Celaya hiritik asko eta inguruetako komunitateetatik beste asko. Guztiak ere sei hilabetez Elay enpresan lan egitera. Kontuolan azaldu genizuen bezala, Elayk beste lantegi bat eraiki behar du Celayan. Mexikar gazte hauek Antzuolara etorri dira lanera, gero euren herriko lantegian aritzeko. Gazteak dira oso. Gazteenak hemeretzi urte ditu eta zaharrenak, hogeita hamahiru. Baina horrek ez die ardura. "Lanera etorri gara eta bide batez beste herrialde bat ezagutzera". Eta bide batez, elurra ezagutzera. Elurra egin zuen asteburuan izan ginen berbetan eurekin eta elurra ikusten zuten lehenengo aldia zen. Mexikotik Antzuolara eskolaren bitartez lortu dute etortzea, aukeraketa prozesu baten ondoren. Baina Antzuolan edo Antzuolarako bidean ezagutu dute elkar. Izan ere toki askotatik etorri dira eta: Celaya, Aguas Calientes, Guanajuato, Juventinos Rosas, Salamanca, San Martin de Camargo eta Veracruzetik.

Kontatu digutenez, "ohiturak ezberdinak dira. Poteoa esaterako ez genuen ezagutzen. Han ez daukagu tabernaz taberna ibiltzeko ohiturarik. Baina, egia esan, jendea ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen digu horrek. Janaria ere ezberdina da; batez ere hemengo pikantea, ez da hangoa bezalakoa; ez digu minik egiten, nahiz eta gehiago botatzen diogun". Antzuolako herriari buruz ere galdetu genien eta aho batez zera esan ziguten: "Antzuola? Txikia eta hotza". Antzuola txikia iruditzea ulertzekoa da Celayaren tamaina ikusita. Hotza dela esateak ere badu azalpenik. Celayan gutxieneko tenperatura sei gradukoa da (neguan) eta bataz beste 20 gradu egiten omen du. Baina zerk sortu dizue ikusmina? "Berdeguneek eta mendiek. Celaya oso laua da eta ez dago horrenbeste zuhaitz. Hemengo parajeak oso politak dira. Dagoeneko Gipuzkoa eta Bizkaiko herri asko bisitatu ditugu eta orain Pirinioetara joatekoak gara".

Mexikora joango bagina zer jango genuke? "Molea, tamalea, pozoleak, takoak, gorditak edo entxilada, adibidez. Baina Celayara joanez gero, cagetak. Ahuntz esnearekin egindako gozoak". ■

■ ■ ■

*Oscar Tellez, Martin Vazquez, Carlos Moreno, Raul Servín "Rules", Jair Aguilar, Jorge Ragel, Marco Arbizu, Patxi Corrales, Victor Subias, Miguel Martínez, Angel Cabrera, Porfirio García, Jose Javier Villagrán, Carlos Alberto Angeles, Mariola Satorre eta Jorge Roca*

■ ■ ■

# Nekane Gabilondo, gizarte langilea



**Nekane Gabilondo** da joan den urritik gizarte langile berria. Karmele Kortak amatasun baja hartu zuenetik, bergarar gazte hau ari da Antzuolako udaletxean gizarte langile lanetan.

Orain arte Jardun euskara elkartean ibili da lanean Nekane. Izan ere, bera izan da talde horren gazte dinamizatzailea. Hori dela eta, Antzuolan ere ezaguna da Nekane. Antzuolako Gaztetxokoaren lehenengo urtean berarekin elkarlanean antolatu zuten eta, Gaztetxokoa. Jardunen lau urtez ibili da Nekane, baina berak Iruñean gizarte langile izateko ikasi zuen. Aitortu digunez "gustura ari naiz Antzuolan lanean". Herritarrek harrera ona egin diotela dio,"baina herria ezagutzen dihardut oraindik".

## MOTZIAN

### UDALAK SUSTATUKO ETXEAK

Mireia Unamuno alkateak jakitera eman digunez, Udalak sustatuko etxeetako jabeek dituzten duda eta galdera guztiak argitzeko, alkateari idatziz agertu beharko dizkiote. Era honetan, Jaime Telleria aparejadoreak galdera guztiak jaso eta beharrezko azalpenak jabeari emango dizkio pertsonalki.
Izan ere, Jaime Telleria da Udalak izendatu duen aparejadorea A-20 gunean egiten ari diren etxeetarako. Dirudienez, jabe bat baino gehiago joan da dagoeneko udaletxera etxe horien gaineko galderak egitera. Mireiak azaldu digunez, "modu honetara, komunikazioa zuzenagoa eta zehatzagoa izatea lortu nahi dugu. Dena den, oraindik hainbat gauzen gainean berba egiteko goiz da eta Jaimek berak ere aztertu beharko dituen dudak planteatzen ditu jendeak".

### IDOLAZEN BATZARRA

Idolaz euskara taldeak bilera berezia antolatu du abenduaren 18rako. Orain dela hiru aste egindako bileraren jarraipena izan nahi du batzar honek. Hori dela eta, aurreko bileran agertu zirenei eta agertu ez zirenei egin die deia Idolazek. Aurrera begira Idolazen egin beharreko lana zehaztea litzateke helburua, edo behintzat, batzar orokorrean bazkideen aurrean aurkeztu beharrekoaz eztabaidatzea. Bilera 11:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan bukatuko da, Udal Liburutegian.

### ZINE EMANALDIA

"Antz" filma eskainiko dute zinetokian abenduaren 5ean, domekan, arratsaldeko 16:30etan. Hurrengo domekan, berriz, abenduaren 12an, "Power Rangers espazioan" filma emango dute.

## Beste emakume bat erail dute

Virginia Acebesen gorpua azaroaren 25ean lurperatu zuten, "Emakumeak jasandako erasoen aurkako Nazioarteko Egunean". Nigan piztutako inpotentzia eta amorru biziak lerro hauek idaztera eraman naute.

Egunero ematen da kasuren bat: 80 urteko agure batek bere emaztea bonbonaz jo eta zerraldo utzi duela, gazte batek andregaia leihotik bota duela, besteak ez duela bakean uzten aspaldi banandu ziren arren... Gure aurkako bortizkeriak ez du mugarik. Iaz 600 emakumek baino gehiagok salatu zuten tratu txarrak jasan izana. Egunkarietako "sucesos" orrietan zutabe txikietan azaltzen dira gertaera hauek. Ematen den bortizkeria nabarmena da, terrorismorik mingarriena. Emakume bati emandako tratu txarra ez da, norberaren arazo pribatua, arazo sozial larria da. Denoi dagokigu. Gizonei esaten diet jarrera erangikorra izan dezatela emakumeen eskubide eta duintasuna zapuzten dituzten jokaeren kontra. Askotan koadriletan kobertura ematen zaie. Emakumeei, batez ere gazteei, beldurraren sarean ez erortzeko diotsuet. Komunikabideek, politikoek ere mezu mugatzaileak zuzentzen dizkigute: ez ibiltzeko kalean ordu txikietan, mutil batek lagunduta joateko, erropa "tentagarririk" ez jazteko... Ez dira mezu askatzaileak. Ez dugu bizkarzainik nahi, ezta polizia gehiagorik ere, gogoratu emakume brasildarrari Indautxuko komisaldegian gertatutakoa.

Emakumeoi asko kostatu zaigu dauzkagun eskubideak lortzea. Geure bizitzaren jabe gara. Legedian, hezkuntzan, komunikabideetan eta gure buruetan asko dago aldatzeko. Gure eskubideak eta askatasuna ez daude salgai.

**Pilar Etxaniz**












*Egiten diharduten lanekin Eztala gertu lagako dute.*

# Estalako futbol zelaia prest

**Estalako** futbol zelaian hainbat konponketa egiten hasi dira. Aldagelak eta biltegia dauden etxetxoa handitzeko lanak eta lur jausiak ekiditeko berriz ere lurra botako dute futbol zelaian.

Valen Moñuxek azaldu digunez, biltegia handitzeaz gain, aldageletako ur bero sistema aldatu egingo da. "Orain arte, ura berotzeko sistema elektrikoa zegoen, baina horrek arazoak ematen zituen. Ur kopurua mugatua zen eta ur berorik gabe gelditzen ziren. Orain gasoleo biltegi bat jarriko da aldagelen kanpoaldean eta horrekin ur beroaren arazoa konpontzea lortuko dugu".

Horrez gain, aipatutako etxetxo horrek pitzatuak dauzka, zimendua gaizki dagoelako. Beraz, zimendu lanak behar bezala egin ondoren arazo hori konponduta geldituko da.

# Olaran etxearen konponketak

**Orain dela** hamabost bat egun, Olaran etxea berriztu behar zutela azaldu genizuen. Hainbat konponketa egin beharra daukagu emandako informazioaren gainean. Batetik, lanak noiz hasiko diren argitu behar dugu. Teilatu eta barruko egiturari dagozkion lanak joan den astelehenean hasi ziren. Arrasateko Lanbide Eskolako ikasleen errekuperazio lana ekainean hasiko da.

Aurrekontuari dagokionez, Antzuolako Udalak berrizte lanean erabiliko den materialaren %25a ordaindu beharko du eta ez Kontuolan esan ziren 216 milioiak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainera, 14 milioiko dirulaguntza ematea onartu dio Udalari. 10 milioi beheko solairuko konponketak egiteko, eta 3 lehenengo eta bigarrenekoak egiteko. Olaran etxean enpresa berriak bultzatzeko zentroa egingo da, lehenengo eta bigarren pisuan. Zentro hau Deba Garaiko Mankomunitateak gestionatuko du. Beheko solairuan, berriz, erakusketa gela eta hitzaldietarako gela bana jarriko dira. Hauxe izango da Antzuolako Udalak gestionatuko duen solairua.

**Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon**

**1. Zuk guri karamelua emon dozu.**

*1.* ..............................

**2. Iez be diskua erosi jaten amari.**

2. ..............................

Izen-abizenak eta telefonua: ..............................

..............................

IDOLAZ ANTZUOLA

**bertako hizkeria**

*Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:*

*1. Jaikittakuan oiñetakuak jantzi eta oherakuan erantzi.*

*2. Bihar etorri neike / geinke / zeinke.*

***Sarituak: Jesus Kortabarria eta Onintza Legorburu***

**Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegixan, DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian **5.000** pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko dittugu hamabostero.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

# Jone Larrañaga, kultura teknikaria

## *"Baserrixa hobeto baloratzia nahi dogu"*

**Asko dira gure baserrietako ganbaretan gordeta dauden etxeko tresna eta lanabes zaharrak. Hori dela eta, Udalak, Foru Aldundiak lagunduta, Zaharkinak proiektua burutuko du Aranzadi elkartearekin batera. Helburua gure historiaren zati diren elementu horiek guztiak artxibo historikoaren zati bihurtzea dira. Jone Larrañaga, kultura teknikariak azaldu dizkigu Zaharkinak proiektuaren nondik norakoak.**



**Zer da Zaharkinak izeneko proiektua?**

Gure ondare etnografikua ezagutzera emoteko proiektua, erakusketa batekin bukatuko dana. Basarrittan lurra lantzeko eta abeltzantzarako erabilittako tresnak, altzarixak, erlijiñoko gauzak, garbittasunerako erabiltzen zirenak...

**Zein helburu dauka?**

Gure ondaria hobeto ezagutzia eta baloratzia. Gauza horrek, azken fiñian, gure herrixan bizitzaren oiñarri izan direlako eta gure historixian zati direlako.

**Zeintzuk hartuko dute parte Zaharkinak-en?**

Aldundiak lagundutako proiektua da, eta Antzuolako Udalak eta Aranzadi elkartiak egingo dabe. Aranzadi elkartekuek proiektua teknikoki landuko dabe. Euren lana, basarrittan ikusittako tresnen fitxak egin, eta aukera egin eta gero, tresnak batzia eta garbitzia izango da. Erakusketa be eurek montatuko dabe.

**Baserritarren parte hartzea oso garrantzitsua da.**

Duda barik. Euren etxetan sartzeko aukeria eta gauzak lagatzia euren esku dagolako. Argi eta garbi laga nahi dogu basarrittan jasotako pieza danak segurua izango dabela, eta erakusketia bukatutakuan danak bueltatuko direla.

**Gazteek ere parte hartuko dute.**

Bai. Gure asmua da 13-20 urte bittarteko gaztiekin harremanetan jartzia eta parte hartze aktibua edukitzia. Aranzadikuez gain, basarrittara gaztiak be juango dira. Piezen argazkixak etarako dittue eta pieza horren ezaugarrixak jaso.

Transmisiño aldetik eten haundixa dago zaharren eta gaztien artian. Gaztiak zuzenian parte hartuta, lehengo bizimodua eta kulturia ezagutu eta, azken fiñian, gure sustarren kontzientzia hartzia bultzatu nahi da.

**Noiz hasiko da proiektua?**

Abenduan 14an egingo dan billeran proiektua azalduko da. Gonbidatuta dare basarrittar danak, gaztiak eta interesa dauken herrittarrak. Abenduan 20xan gaztiekin elkartuko gara, eta zein lan egingo daben azalduko jakue.

**Erakusketa noiz izango da?**

Maiatzian erdittik ekain erdira, frontoian. Baiña aurretik, lan asko dago egitteko. Horrez gain, esan biharra dago herrirako dokumentu historiko garrantzitsua geratuko jakula pieza danen fitxak eta argazkixak Udaletxeko artxibuan geratuko direlako. ■





*Honelako piezak jasoko dira.*

■ ■ ■

"Jasotako pieza danak segurua izango dabe eta gero jabiei bueltatu egingo jeu"

■ ■ ■




Zabalo Iturgintza S.L. Bidea eginez

**Tailerra**: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
**Erakusketa:** Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •



Ofizialki, zapatuan, abenduaren 4an, emango zaio hasiera denboraldiari

# Eskiak gertu?

**Aurreko egunetan eroritako elurraren ondorioz hainbat estazio ireki bada ere, asteburu honetan irekitzen da ofizialki 99-2000 eski-denboraldia. Bergarar askok prestatu dute dagoeneko denboraldi berri hau.**

Eskiak bizkarrean dituela, trabesia egiteko malda igotzen dihardu eskiatzaileak Mulleresera bidean (Benasque).

ARGAZKIA: BENITO CANTERO

Amabirjinaren zubia egokitu da aurten eski-denboraldiaren hasieran, irekiera ofiziala abenduaren 4a, zapatuan, baita. Baina elurra aurreratu egin da aurten eta zenbait estaziok ateak ireki zituen dagoeneko orain dela bi aste. Itxi, berriz, apirilaren azken asteburuan itxiko dira, elurraren arabera.

Tarte luze horretan jende-uholdeak izango dira eski-estazioetan eta mendietan, kirol edo afizio honek zaleen mugimendu handia sortzen du eta.

Bergaran ere bada eskiatzeko zaletasunik. Eta horren lekuko izan dira azken egunotan Pol-Pol Mendizale Taldea, jendea hasi delako federatu-txartelak ateratzen, eta bidai-agentziak, zubian eskiatzera joateko bidaia asko saldu dituztelako. Gainontzeko guztiok, ondoan eskizale amorratu horietako bat ez badugu behintzat, asteburu luze honen hasieran ikusi ahal izango dugu herrian zenbaterainoko afizioa dagoen, oporraldi hau aprobetxatuz gainean eskiak jarri eta kotxe asko izango direlako eski-estazioetara abiatuko direnak.

**POL-POLEN ESKAINTZAK**

Pol-Pol Mendizale taldea orain dela 22 urte hasi zen bergararren eski-zaletasunaz arduratzen eta orduz gero du Eski Saila bere baitan. Eskiko Federatu txartela, eskiatzean gerta daitezkeen istripu eta bestelako gorabeheren aurkako asegurua eskaintzen duena, ateratzeko aukera ematen die bere bazkideei 6.500 pezeten truke, guztira 400 bat tramitatuz bere bulegoetan.

Donostiara Eskiko Federaziora joan beharrean tramite hau Bergaran egiteko aukera emateaz gain, eskiatzera joateko hainbat eskaintza ere luzatzen du denboraldian zehar Pol-Polek, kasu honetan, herritar guztiei. Denboraldi berri honetan urtarrilean hasiko da eski-irteeren programa. Ia hamabostero, eta gutxi gorabehera 15.000 pezeten truke, Formigalera joateko eskaintzak izango dira apirilera arte: bi egunetako forfaita, alojamendua eta otordu batzuk, bidaia eta asegurua barne eta materialaren alokairua eta ikastaroa, aukeran. Asteburu luzeak egokitzen badira, Baqueira Beretera izango da irteeraren bat; azkenik, Aste Santuan, Alpeetara.

Eskaintza hauetaz gain, Pol-Polek bigarren eskuko mendiko materialaren merkatu txiki bat ere antolatzen du urtero eta bertan eskiatzeko materiala merkeago erosteko aukera izaten da. Aurten azaroaren 15etik 21era bitartean egin zen eta oso arrakastatsua izan zen.

**MATERIALA ETA BESTE GASTUAK**

Merkatu berezi horretan materiala merkeago eros zitekeen, baina ez da material-erosketa eskiatzera joatean dagoen




gastu bakarra: eskiak, erropa, lojamendua, erremonteak, otorduak.... Zerrenda luzea da eta aspaldi honetan ari gara entzuten eskiatzera joatea denon eskura dagoela eta asko merketu dela. Baina diru-kontuak ateratzen hasiz gero, hori egia ote den zalantzan jartzen da.

Horrela, Donostiako denda espezializatu batera jo eta eskiatzera joateko pertsona bat goitik behera ekipatzeak 121.790. pezetako kostua duela adierazi digute (anoraka, 18.995; prakak, 13.995; jertsea, 4.995; eskularruak, 7.200; txapela, 2.800; betaurrekoak, 7.440; galtzerdiak, 1.275; taula, finkatzaile eta makilak, 43.500; eta botak, 21.990). Kontuan izan behar bada eskimodalitate diferenteak daudela eta bakoitzak bere berezitasuna duela eski eta botei dagokienez, prezioak ere zerbait aldatzen direla.

Goiko argazkia, Valdezcarayko eski estazioari dagokio. Snowboard modalitatea geroz eta hedatuago dago gazteen artean; ondoko orrialdean, Alex Osuna, Astunen, iaz ateratako argazkian.

Eskia, berriz, toki askotan praktika daiteke eta, bergararren artean Candanchu, Astun, Formigal, Baqueira Beret eta Valdezcaray dira Espainiako estazio erabilienak. Baina herriko bidai-agentzietakoek adierazi digutenez, ohitura horiek aldatzen hasi dira eta Bergarako eskizaleak Frantziako Piriniora (Saint Lary, Arette, Luz Ardiden, Cauterets, e.a.) eta Andorrara (Pas de la Casa) joaten hasi dira, prezioak eta instalazioak hobeak direlako.

**Bergararren ohiturak aldatzen hasi dira. Candanchu utzi eta Frantziako Pirinioetara eta Andorrara joaten hasi dira hango instalakuntza hobeek erakarrita.**

Bergarako eskizale gehienek eski alpinoa praktikatzen dute eta normalean denboraldi osoa aprobetxatzen dute, ia astebukaera guztietan joanez. Horrela, lagun-koadrila bat elkartu eta eski-estazioaren inguruan pisua edo apartamentua alokatzen da denboraldi osorako, hilean 50.000-80.000 pezeta bitartean ordainduz. Bidai-agentziek ere aukera zabala eskaintzen dute, baina denboraldi osorako alokairua baino garestiago ateratzen da.

Demagun datorren urteko urtarrilaren amaieran eskiatzera joan nahi dugula. Bidai-agentzietara jo eta antzeko eskaintzak topatu ditugu guztietan. Esaterako, bi egun bi izarreko hotelean, gela bikoitzean eta mantenu erdian, eguneko eta pertsonako 6.500 pezeta inguruan atera daiteke (Candanchun, Andorrako Pas de la Casa eta Frantziako Saint Laryn), horri estazio bakoitzak bere erremonteak erabiltzeagatik kobratzen duen forfait deritzana gehitu behar zaiolarik (bi egunetarako 7.400, 6.200 eta 6.300 pta. hurrenez hurren). Apartamentua aukeratzen badugu, aste osoa 60.000 pezeta eta 200.000 pezeta bitartean aterako zaigu lau lagunoi. Hemen ere forfaita ordaindu behar dugu, noski, eta denboraldi osorako partikularren apartamentuak alokatzen direnean bezala, otorduak ere gehitu egin behar dira; eta kasu guztietan, bidaia (6.000 bat pezeta bidaia eta kotxe bakoitzeko) eta eskiak eta bestelakoak eramateko kotxea prestatzeak dakarrena ere bai.

**FONDOA, TRABESIA ETA SNOWBOARDA**

Eski alpinoa da oraindik eskizaleen artean modalitaterik hedatuena, baina

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57


HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



beste batzuk hasi dira bidea jorratzen. Hortxe daude trabesia, fondoa edo iraupeneko eskia eta snowboard modalitatea.

Trabesia mendian gora egiten da, aldapetan beheruntz irrist ez egiteko eskiei foka-larrua erantsiz eta gora heltzean, pistatik jaisteko, pistarik badago behintzat, larru hori kenduz eta alpinoa egiteko atzeko partea gehituz. Bergarako jendea Valdezcaray, Belagua eta Linza inguruetara joaten da trabesia egitera.

Fondo, berriz, toki lauetan egiten da eta ez da beharrezkoa oso urrutira joatea, Urbian, esaterako, egiten du jendeak.

Baina azkenaldi honetan snowboard izeneko modalitatea ari da geroz eta indar handiagoa hartzen. Bergaran ere asko zabaldu da gazteen artean eta 40 bat omen dira praktikatzen dutenak.

Alex Osuna da horietako bat. Bost urte daramatza gazte honek eskiatzen, baina aurreko denboraldian hasi zen snowboard egiten eta alpinoa baino askoz ere gehiago gustatzen zaiola dio, 100.000 pezeta ordaindu duen modalitate honetarako taula berezia askoz ere maneiagarriagoa delako eta oreka eta posturak gehiago zaindu behar direlako. Alex Astunen ibili zen joan den urtean snowboard egiten eta aurten Andorrara joango da denboraldi osoa pasatzera, lana eta oso gustoko duen afizioa tartekatzera.

Bera bezala, bergarar ugari izango dira aurtengo denboraldian ere elurrarekin eta eskiekin harremana izango dutenak.<

## Datuak estazioz-estazio

| | FORMIGAL | CANDANCHU | BAQUEIRA BERET | VALDEZCARAY | PAS DE LA CASA |
|---|---|---|---|---|---|
| *Eskiatzeko gunea* | 56 km. | 50,782 km. | 77 km. | 14,2 km. | 88 km. |
| *Pistak* | 4 berde<br>13 urdin<br>24 gorri<br>11 beltz | 9 berde<br>8 urdin<br>14 gorri<br>15 beltz | 3 berde<br>17 urdin<br>2 gorri<br>4 beltz | 3 berde<br>4 urdin<br>6 gorri<br>beltz 1 | 8 berde<br>9 urdin<br>21 gorri<br>11 beltz |
| *Erremonteak* | Telekabina 1<br>6 teleaulki<br>16 teleski<br>(22.229 pertsona orduko) | 5 teleaulki<br>19 teleski<br>(21.000 pertsona orduko) | 16 teleaulki<br>8 teleski<br>(30.968 pertsona orduko) | 4 teleaulki<br>7 teleski<br>(7.640 pertsona orduko) | 11 teleaulki<br>19 teleski<br>Funitel bat<br>(40.615 pertsona orduko) |
| *Forfaita eguneko* | 4.100 PTA | 3.800 PTA | 4.400 PTA | 2.900 PTA | 4.000 PTA |
| *Beste eskaintzak* | Trabesia-eskia<br>Gaueko eskia<br>Txakur-trineoak | Snowboard<br>Iraupeneko eskia<br>Trabesia<br>Txakur-trineoak | Iraupeneko eskia<br>Irteerak erraketaz<br>Txakur-trineoak | Irteerak erraketaz<br>Mendi irteerak | Gaueko eskia<br>Slalom bat |
| *Berrikuntzak* | Teleskia hasi berrien gunean<br>Aparkaleku handiagoak | Candanchu eta Astuneko pista batzuk bat egitea<br>Teleaulki batzuk berritzea | Teleski berria Bonaiguan<br>Sei plazako teleaulkia | | Kilometro gehiago<br>Zerbitzu gune berria<br>Aparkaleku handiagoa |

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

# Herriko dozena bat lagunek hartu zuen parte Donostiako maratoian

## Bixente Pagaldaik maratoiaren 22 edizioak egin ditu

**Bergarako 10 lagunek eta Antzuolako Iker Larreak amaitu zuten domekan Donostian jokatutako maratoia. Iker Larreak egin zuen denborarik onena (2 ordu, 43 minutu eta 49 segundu) eta bergararren artean, berriz, Roberto Zurrok (2:44:43): sailkapeneko 105. tokia.**



Argazkian, korrikalari talde bat ura jasotzen domekako proban. DV

Aurtengoa Donostiako maratoiaren 22. edizioa zen eta Bixente Pagaldai 51 urteko bergararrak guztiak amaitu ditu. Domekan 3 ordu eta 10 minutuko denbora behar izan zuen ibilbideko 42 kilometroak eta 195 metroak betetzeko. Bere hitzetan, "hiru ordutik beherako denbora egiteko asmoa nuen baina, ura edan arren, deshidratatu-edo egin nintzen eta arazo batzuk izan nituen. Gero, ura azukarrarekin hartzean, errekuperatu egin nintzen eta azken zortzi kilometroetan ondo korritu nuen, indartsu bukatu nuen proba". Hala ere, hiru ordu eta hiru minututik gorako denbora egiteagatik, lantegiko lagunei afariren bat edo beste ordaintzea tokatuko zaio Bixenteri. Berak esan digunez, "uztailean ekin nion maratoia gertatzeari eta egindako entrenamenduetan sasoitsu ikusten nuen nire burua, izan ere 42 kilometroko entrenamendu batean hiru ordutik behera egin nuen. Hala ere, gauza bat da ondo entrenatzea eta beste bat lasterketa egunean onena ematea, faktore asko izaten direlako tartean". Donostiako maratoiko edizio guztiak ez ezik, Pagaldaik beste 11 maratoi korritu ditu bere bizitzan.

### HAIZEA

Bestalde, Basilio Aranburu bergararrak eta Karlos Baleztena antzuolarrak ez zuten proba amaitzerik izan. Antxitxika egiteko tenperatura ona (10ºC) eta zeru urdina izan zuten partaideek domekan baina maratoiaren erdialdean jo zuen haizeak irabazleak marka aipagarria egitea saihestu zuen. Pagaldaik adierazi digunez, "Ondarretatik barrukaldera joatean haize gogorra irten zen eta korrikan aldeko haizeak gehiegi lagundu ez arren, kontrakoak kalte asko egiten digu korrikalarioi".

Aurtengo edizioan partaidetzaren errekorra hautsi du maratoiak. 1.582 lagunek eman zuten parte hartzeko izena eta 1.152 heldu ziren Anoetan jarritako helmugara. Peter Chebet keniarrak irabazi zuen maratoia, lasterketako azken zatian Diego Garcia azkoitiarra gainditu ondoren.

## Bergararren eta antzuolarren behin-behineko sailkapena

Iturria: Antolatzaileak

| | | |
|---|---|---|
| **100** | Iker Larrea Soraluze (Antzuola) | 2:43:49 |
| **105** | Roberto Zurro Usabiaga | 2:44:33 |
| **190** | Aitor Eraña Arroiabe | 2:52:59 |
| **201** | Aitor Rementeria Gantxegi | 2:54:10 |
| **379** | Aitor Laskurain Zubia | 3:05:39 |
| **391** | Imanol Bolinaga Agirre | 3:06:24 |
| **421** | Iñaki Zangitu Mujika | 3.08.40 |
| **456** | Bixente Pagaldai Garitano | 3:10:29 |
| **506** | Joaquin Gonzalez Martinez | 3:13:31 |
| **710** | Joxe Inazio Balentziaga Larrañaga | 3:25:57 |
| **893** | Igor Labaien Olasolo | 3:38:41 |

# Bergararrak bikain Jaizkibelen

## Zabaleta eta Bretaña txapeldun euren kategorietan

**Aitor Zabaleta** bergarar gidariak domekan jokatutako Jaizkibeleko igoera irabazi zuen. Proba Mendiko Euskal Txapelketarako baliogarria zen eta, domekako garaipenaren ostean, Aitor Zabaleta dugu txapeldun berria, jokatutako bederatzi probetatik zazpitan nagusitu baita bergararra. Datorren abenduaren 19an, Beasainen, txapelketako azken proba jokatuko da. Lola BMW-Telefonica kotxea gidatuz, Zabaleta Ander Vilariño 19 urteko gazteari (Osella PA-20) nagusitu zitzaion. Sailkapenean Aitorrek 3 segundu eta 56 ehuneneko atera zizkion Andres Vilariñoren semeari. Domekan zaletu asko bildu ziren Jaizkibeleko Udazkeneko Igoeraren hirugarren edizioan eta partaidetza 100 kotxe ingurukoa izan zen.



Aitor Zabaletak Mendiko Euskal Txapelketa eskuratu du.

**BRETAÑA ETA HERNANDEZ**

Bestalde, 1.400-1.600 cc. bitarteko kotxeak biltzen dituen 2. klasea deiturikoan ere bergararrak izan ziren nagusi, Javier Bretaña (Citroen Saxo Vts) eta German Hernandez (Opel Corsa) lehen eta bigarren postuetan sailkatu baitziren. Erauskinen jokatu beharreko azken probaren faltan, Bretaña bere kategoriako txapelduna da dagoeneko eta Hernandezek bigarren postua eskuratzeko aukera dauka.

# Etxaniz-Berna zapatuan Udal Pilotalekuan

**Jokin Etxanizek** Bernaren aurka jokatuko du bihar, zapatua, Bergaran, lau t'erdiko txapelketaren barruan. Partidu erabakiorra izango da, irabazlea finalerdietarako sailkatuko baita. Etxanizek 22-18ko emaitzarekin irabazi zion aurreko zapatuan Inazio Errandoneari, Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatutako partiduan. Etxanizek eta Errandoneak pilotakaden errekorra hautsi zuten. Orain bi urte Beran 637 pelotakada eman bazituzten, zapatuan 682 behar izan zituzten partidua erabakitzeko.

Etxanizek sasoi onean dagoela erakutsi du, baina Bernak ere finalerdietarako sailkatzeko aukera dauka, joan zen eguakitzean, ustekabean, Nagore menderatu ostean. Bihar ere Etxanizi gauzak zail jartzen ahaleginduko da errioxarra. Biharko jaialdia arratsaldeko 16:30etan hasiko da, Agirre-Errasti eta Berasaluze VIII.a-Armendariz bikoteen arteko neurketarekin. Hirugarren partiduan, berriz, Pascual eta Nalda III.a izango dira aurrez aurre.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Urola**
Infantilak
Zapatua. 11:00. Ipintza

**Bergara-Lazkao**
Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 15:30. Ipintza

**Bergara-Aretxabaleta**
Bigarren mailako jubenilak
Zapatua. 17:15. Ipintza

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Andraitz**
Junior mutilak
Domeka. 12:15.
Mariaren Lagundia

**PILOTA**

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

**Bergara-Deba**
Jubenilak

**Jabier Bastida (Deba)-Unai Idiakez (Bergara)**
Senior indibiduala. Finalerdiak (joaneko partiduan 14 eta 22ko emaitzarekin irabazi zuen Unai Idiakezek).
*Domekan, 12:30etan, Udal Pilotalekuan*

PROFESIONALAK

**Agirre-Errasti/Berasaluze VIII-Armendariz**

**Etxaniz-Berna**
(4 t'erdiko txapelketa)

**Pascual-Nalda**
*Bihar, zapatua, 16:30etan, Udal Pilotalekuan*

Aldibi
Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

SANTOS
IRRATI-TB
TELEFONIA MUGIKORRA • SUKALDEKO ALTZARIAK • ARGIZTAPENA
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

**ZAPATUA, abenduak 11**
**BARRUAN**

| | | |
|---|---|---|
| **10:30:** | Shaktale-Vacalouras | **Urrutxurtu** |
| **11:30:** | Urrutxurtu-Agirrebeña | **Moskis** |
| **12:30:** | Moskis-Ari Ari | **Agirrebeña** |

**DOMEKA, abenduak 12**
**BARRUAN**

| | | |
|---|---|---|
| **16:00:** | Tom Cat-Patxaran Team | **A Ze Flaxa** |
| **17:00:** | A Ze Flaxa-Soropotroak | **Ufala** |
| **18:00:** | Ufala-Artusamak | **Fac** |
| **19:00:** | Fac-Guadalest | **Xurrupak** |
| **20:00:** | Xurrupak-Bar Canalejas | **Guadalest** |

**DOMEKA, abenduak 12**
**KANPOAN**

| | | |
|---|---|---|
| **09:00:** | Bayer-Amilotx | **Buya** |
| **10:00:** | Buya-Agiñaspi | **Mongatxurra** |
| **11:00:** | Mongatxurra-Amoskibar | **Errotagain** |
| **12:00:** | Errotagain-Komando Piperrak | **Amoskibar** |

## EMAITZAK

| **A MULTZOA** | |
|---|---|
| Pagomendi-Azpeitxi jatetxea | **6-2** |
| Irubide jatetxea-Moskis | **8-2** |
| Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri | **1-2** |
| Pinturas Bergara-La Juve | **10-3** |

| **B MULTZOA** | |
|---|---|
| Amilotx-Urrutxurtu | **0-8** |
| Bildurbarek Opel Lam-Patatus | **4-1** |
| Patxaran Team-Amozkibar | **0-5** |

| **C MULTZOA** | |
|---|---|
| Torrekua-Uve Bikoitza | **0-6** |
| Buya-Soropotroak | **4-2** |
| Ortzi Angiozar-Ion Autoak | **2-1** |

| **D MULTZOA** | |
|---|---|
| Xurrupak-Guadalest | **0-5** |
| Txipiron-Aterpe | **4-1** |
| Errotagain-Artusamak | **3-0** |

## GORA ETA BEHERA

**Txipiron, Errotagain eta Ortzi**
D multzoan, Txipironek 4-1eko emaitzarekin irabazi zion Aterperi eta multzo berean Errotagainek lidergoari eutsi zion Artusamak gainditu ondoren. Ortzik ozta-ozta irabazi zuen eta angiozartarrek 2. postuan jarraitzen dute.

**Amilotx, Xurrupak, Torrekua**
Hirurek goleadak jaso zituzten Urrutxurtu, Guadalest eta Uve Bikoitza taldeen aurka eta hori gutxi balitz ez zuten golik egiterik izan. Xurrupak, hala ere, lau puntura dago laugarren tokian dagoen Guadalest taldearekiko.

**ARGI!**
**Zubian jai**
Astebukaera honetan ez da partidurik jokatuko datorren asteko zubia dela eta. Hurrengo jardunaldian, abenduak 11 eta 12, lehen itzulerako azken partiduak jokatuko dira.

## SAILKAPENAK

| **A multzoa** | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Pagomendi | 27 | 9 |
| 2. | Azpeitxi jatetxea | 21 | 9 |
| 3. | Irubide jatetxea | 19 | 9 |
| 4. | Sirimiri Eri | 19 | 9 |
| 5. | Pinturas Bergara | 9 | 9 |
| 6. | Ari Ari | 7 | 8 |
| 7. | Mo(ko)lotov | 7 | 9 |
| 8. | Moskis | 6 | 8 |
| 9. | La Juve | 6 | 9 |
| 10. | Etengabe | 6 | 9 |

| **B multzoa** | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Mongatxurrak | 18 | 8 |
| 2. | Bayer | 17 | 8 |
| 3. | Bildurbarek Opel Lam | 16 | 9 |
| 4. | Urrutxurtu | 16 | 8 |
| 5. | Amozkibar | 16 | 8 |
| 6. | Tom Cat Argandolas | 9 | 8 |
| 7. | Agirrebeña Jatetxea | 9 | 8 |
| 8. | Patxaran Team | 8 | 8 |
| 9. | Amilotx | 6 | 8 |
| 10. | Patatus | 0 | 9 |

| **C multzoa** | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | A Ze Flaxa Etxagi | 22 | 8 |
| 2. | Ortzi | 21 | 9 |
| 3. | Uve Bikoitza | 19 | 9 |
| 4. | Shaktale | 13 | 8 |
| 5. | Vacalouras | 11 | 8 |
| 6. | Buya | 10 | 8 |
| 7. | Agiñazpi | 9 | 8 |
| 8. | Soropotroak | 6 | 8 |
| 9. | Ion Autoak | 6 | 9 |
| 10. | Torrekua | 3 | 9 |

| **D multzoa** | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Errotagain | 22 | 8 |
| 2. | Bar Canalejas | 18 | 8 |
| 3. | Artusamak | 16 | 8 |
| 4. | Guadalest | 16 | 8 |
| 5. | FAC | 14 | 8 |
| 6. | Xurrupak | 12 | 8 |
| 7. | Txipiron | 10 | 9 |
| 8. | Aterpe | 4 | 9 |
| 9. | Ufala | 4 | 8 |
| 10. | Komando Piperrak | 1 | 8 |

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49
Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA
KIROLAK

## mahoneroak



**OSKAR MAIZTEGI**
**Bergarako jokalaria**

Arenasen aurkako partiduan, hasieratik, garaipenaren bila atera ginen eta gauzak ondo atera zitzaizkigun, Josetxoren golari esker markagailuan aurreratzea lortu genuelako eta beraiek, lehen zatian behintzat, ez zutelako arrisku handirik sortu. Falta jaurtiketa baten bitartez berdinketaren gola egin ziguten eta epaileak 2-1ekoa izan zitekeena baliorik gabe utzi zigun.

Bigarren zatian ere gol gehiago sartzeko aukerak izan genituen baina ez genuen zorterik izan. Bizkaitarrek, ostera, bigarren zatiko erdialdean-edo, jokoa kontrolatzea lortu zuten eta bizpahiru aukera izan zituzten. Beraz, berdinketa emaitza justoa izan daiteke.

Taldea sasoi onean dago eta ea hurrengo partiduetan emaitza positiboak lortzen ditugun, sailkapeneko behekaldera begiratu beharrean, lasaiago ibiltzeko. Astebukaeran partidu zaila izango dugu Lemonaren aurka baina zerbait eskuratzen ahaleginduko gara.

**Otsein Saria**

Arenasen aurkako partiduan etxekoen aldetik honako hauek nabarmendu ditugu:
**Josetxo Lizarralde** . 3 puntu
**Mikel Osoro** ...... 2 puntu
**Oskar Maiztegi** .... 1 puntu

*Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.*

kronika: **hirugarren mailako futbol taldea**

# Azkenean, berdinketa

| BERGARA | 1 |
|---|---|
| ARENAS | 1 |

1999-XI-28. 15:30. Agorrosin

**Bergara:** Markel Egaña, Jon Andueza, Etor Laskurain, Asier Rodriguez, Mikel Osoro, Arkaitz Arana, Oskar Maiztegi (Txonan Gallastegi, 87. minutuan), Jokin Mendiaratz, Gorka Dueñas (Gotzon Urzelai, 72. minutuan), Josetxo Lizarralde eta Oxel Apraiz.

**Golak:** 1-0. Josetxo Lizarralde. 1-1. De la Sota.



Hirugarren mailako futbol taldeko plantila osoa. KIÑU

Bergarak banako berdinketarekin konformatu behar izan zuen domekan Arenasen aurkako partiduan, nahiz eta lehendabiziko minututik Biainen mutilek garaipena nahi zutela erakutsi. Lehen zatian batez ere, mahoneroak bizkaitarrei nagusitu zitzaien eta gol aukera garbienak etxekoen alde izan ziren. Dueñasek eta Josetxok pare bat aukera huts egin ondoren, Bergararen lehen gola iritsi zen 13. minutuan, Josetxok, gol marran bertan, korner bat buruz errematatu ondoren. Sailkapeneko hirugarren tokian dagoen Arenasek, berriz, ez zuen arrisku handirik sortu lehendabiziko 45 minutuetan eta falta jaurtiketa bati esker iritsi zen berdinketa. De la Sotak maisutasun handiz, ezker hankarekin, Markel Egaña ustekabean harrapatu zuen eta markagailuan banakoa jarri zuen. Atsedenaldiaren atarian, epaileak baliorik gabe utzi zuen Oxelek sarturiko gol bat, atezainari egindako ustezko falta bategatik. Zalegoak epailearen erabakia protestatu zuen.

Bigarren zatian, bisitariek aurrerago egin zuten eta estuasunetan jarri zuten etxekoen defentsa. Hala ere, atezaina eta atzelariak bikain aritu ziren arriskua urruntzeko orduan. Eta partidua amaitzear zegoela, Josetxo Lizarraldek partiduko gol aukerarik onenak izan zituen; lehendabizikoan ez zuen baloia bularrez ondo kontrolatzerik izan eta atezainak arriskua urrundu zuen. Eta gehigarrizko denboran, Osorok egindako zentrua jaso zuen area txikian baina ez zuen baloia sareetara bidaltzerik izan. Azkenean, bi taldeak konforme lortutako puntuarekin. Bergara sailkapeneko 14. tokian dago, 17 punturekin, eta astebukaeran Lemona taldeari egingo dio bisita.

## JAVIER BRETAÑA / Auto gidaria

## "Gorlarekin batera Jaizkibel atsegin dut gehien"

**Javier Bretañak (34 urte) garaipena eskuratu zuen domekan Jaizkibelen, 1.400-1.600 cc. bitarteko kategorian. Euskadiko Mendi Txapelketa amaitzear dagoenean bere kategoriako onena izan da. Mendiko igoeretan ez ezik, rallyetan ere hartzen du parte Julio Abad kopiloto duelarik.**

**G.** Zure kategorian garaipena lortu zenuen Jaizkibelen.

**E.** Bai, Euskadiko Mendi Txapelketako azken sei probetan lehen postua eskuratu dut eta domekan ere karrera ona egin nuen Jaizkibelen. Gorlarekin batera gehien atsegin dudan igoera da. Bi igoera ofizialetan denbora berdina egin nuen domekan, 3 minutu eta 55 segundu. Erauskineko proba jokatzea falta da baina dagoeneko nire kategoriako irabazlea naiz.

**G.** Iaz zirkuituetara itzuli ondoren, emaitza ezinhobea izan da.

**E.** Lehen, 1989tik 91era bitartean ere konpetitzen ibili nintzen baina laga egin nuen, kotxearekin konpetitzeak dirua eskatzen duelako. Aurten, zorionez, hainbat babesleren laguntza izan dut eta gauzak primeran atera dira.

**G.** Zergatik konpetitzen duzu Citroen AX batekin?

**E.** Kotxe ona delako eta orain arte ondo joan zaidalako. Bergaran gertatutako kotxea dela ere esan behar da.

**G.** Zer moduz rally txapelketan?

**E.** Ez gara horren fin ibili, jokatutako 6 probetatik bietan ez baitugu amaitzerik izan. Rallyetan erregularragoa izatea beharrezkoa da.



# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

1. ETXEBIZITZAK
   - Saldu
   - Erosi
   - Errentan emateko
   - Errentan hartzeko
   - Etxe konpartituak
   - Bestelakoak
2. GARAJEAK
   - Saldu
   - Erosi
   - Errentan emateko
   - Errentan hartzeko
   - Bestelakoak
3. LOKALAK
   - Saldu
   - Erosi
   - Errentan emateko
   - Errentan hartzeko
   - Bestelakoak
4. LANA
   - Eskaintzak
   - Eskaerak
   - Bestelakoak
5. IRAKASKUNTZA
   - Eskaintzak
   - Eskaerak
   - Bestelakoak
6. IBILGAILUAK
   - Saldu
   - Erosi
   - Bestelakoak
7. ANIMALIAK
   - Saldu
   - Erosi
   - Bestelakoak
8. DENETARIK
   - Saldu
   - Erosi
   - Eman
   - Hartu
   - Trukatu
   - Galdu
   - Aurkitu
   - Bestelakoak
9. HARREMANAK
   - Agurrak
   - Kontaktuak
   - Deiak
   - Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Antzuola. 943 76 65 65.

Zubieta. 943 76 07 60.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

### ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan Barrenkalen. 945 27 85 13 (Jesus).

### ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. Deitu 943 76 03 31 telefonora.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten pisua hartuko luke errentan. 619 15 44 06 (Fran).

Irakasle batek pisua alokairuan hartuko luke. Deitu 943 76 22 77 telefonora.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 50 77 (Manu).

### ETXE KONPARTITUAK

Etxea konpartituko nuke. 619 39 34 01 (Txomin).

Pertsona behar da pisua osatzeko Bergaran. 943 74 44 44.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. Deitu 943 76 33 88 telefonora.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. Deitu 943 76 36 34 telefonora.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

### ERRENTAN EMATEKO

Burdiñaten, alokairuan edo salgai. 943 76 02 34.

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m². 943 76 28 09.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. 943 76 62 63.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

## 3. LOKALAK

### SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

### EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m² . 607 82 53 06.

### ERRENTAN EMATEKO

Uberan, biltegirako aproposa. 80 m². 943 76 30 84.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsaldez. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

Emakume bat goizez lan egiteko prest. 607 326 706.

Etxeko lanak edota plantxa egingo nuke orduka. 943 76 54 82.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. 943 76 54 20 (Nerea).

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Neska batek etxeko lanak egin edo atariak garbituko lituzke orduka. 943 76 56 66.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

Tabernarako
ZERBITZARIA
behar da
943 76 38 57

Jatetxerako
ZERBITZARIA
behar da
943 76 27 08

Kabia
taberna-erretegia
SALGAI
Prezio ona
943 76 23 08

LAGUNTZAILEAK
behar dira
sukalderako
eta barrarako
943 76 18 49

Kizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

**ESKAERAK**

Haurrak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 04 64.

Etxeko lanak egiteko neska, 9:00etatik 14:00-etara. 943 76 01 80.

Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 943 76 31 11.

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

Majisteritzan diplomatuak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Kimikan lizentziatuak klaseak ematen ditu. Deitu 943 76 42 08 telefonora.

Kitarra. 943 76 45 73.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak. 943 76 21 09.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. Deitu 943 76 02 55 telefonora (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Suzuki GS 500 E motorra. 943 76 31 52.

Seat Ibiza (SS-AB) kotxea. 943 76 00 69.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Golf GTI kotxea (SS-AG) salgai. Kolore zuria eta lau ate. 943 76 13 18.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Fiat Ducato furgoneta. 3 urte, 1.600 kiloko kapazitatea. Deitu 943 76 09 12 telefonora.

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Urtebeteko artzain txakurra. 943 85 00 21.

**BESTELAKOAK**

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Petroliozko estufa berria. 943 76 59 68.

Butanozko sukaldea salgai. 943 76 46 14.

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Apalak. 943 76 25 79.

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. Berri-berria, 10.000 PTA. 943 76 55 63.

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Airwalk snowboarda eta fijazioak. 943 76 45 07.

Chaman piragua, txalekoa, pala eta kotxeko barrak. 943 77 01 74 (Felix).

Bizikleta-rodillo finkoa. 943 75 23 79 (Ana).

Kerosenozko estufa ia berria. 943 76 01 99.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi bafle. 943 88 73 13.

**EROSI**

16 mm.ko zine proiektorea erosiko nuke. 943 76 58 37.

**HARTU**

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.

**GALDU**

Urrezko pultsera galdu dut, "Mari Carmen 24-1-61". 943 76 38 89.

Trango forro polarra Matxiategin. 943 76 51 66.

Urrezko pultsera. "Juli. 5-12-70/5-12-95" inskripzioa. 943 76 58 71.

**AURKITU**

Paparreko orratz bat topatu dugu Lasa jatetxean. 943 76 10 55.


Langai
Euskal Lan Zerbitzua

**DIESEL MOTOREEN MEKANIKOA**
Bilbo. 24019/4

**INFORMATIKA PROGRAMATZAILEA**
Bidasoa Behea. 24413/2

**ASEGURU AGENTEA**
Portugalete. 24721/4

**ELEKTRIZISTA INSTALATZAILEA**
Ibaizabal. 25381/1

**JATETXERAKO GARBITZAILEA**
Aramaio. 25846/3

**KALEFAKZIO INSTALATZAILEA**
Urdaibai. 25881/3

**MAKETAGILEA**
Zamudio. 26048/4

**KOMERTZIALA**
Bilbo. 26134/4

**SOLDATZAILEA**
Bilbo. 26203/2

**LH II KALITATE KONTROLA. MEKANIKA ARLOA**
Debagoiena. 26242/1

**PRODUKZIO ARDURADUNA**
Bilbo. 26259/5

**AUTOMOZIO MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA**
Urola Kosta. 26354/3

**INDUSTRI INJINERUA**
Bilbo. 23405/7

**KOMERTZIALAK, 10**
Markina. 23692/3

**KOMERTZIALAK, 15**
Bilbo. 23698/3

**IGELTSEROAK, 2**
Bilbo. 24338/3

**MANTENIMENDURAKO PEOIA**
Enkartazioak. 24483/5

**INJINERU TEKNIKOA**
Debabarrena. 25628/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Osintxun
DENDA
eta negozioa
salgai
943 76 39 39

COAR
Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.
BERGARA ☎ 943 76 58 86

Neska
behar da
ZERBITZARI
lanak egiteko
943 76 20 29

telkar
Ibargarai 2
943 76 27 11

Eskaintza bikainak poltsikoko telefono eta Datac ordenadoreetan

AUKERA ZABALA: telebistak, biodeoak, minikateak, walkmanak, telefaxak, aldean eramateko audioak, berogailuak, mikrouhin labeak, aspiradoreak, bizarra kentzeko makinak eta elektratresnak

Zorionak

Zapatu arratsaldeetan zabalik!




## MIKEL LASKURAIN. Hika antzerki taldeko aktorea

# "EuskalOFF euskararen aldeko antzezlana da"


Mikel Laskurain aktore bergararra.

**Gaur, eguakitza, estreinatuko dute Hika taldekoek "EuskalOFF 2050", beraien azken lana Azpeitian. Hori dela eta, Hikako partaide den Mikel Laskurain bergarararrekin hitzegin nahi izan dugu.**

**G.** Norena da ostiralean estreinatuko duzuen obra?

**E.** Agurtzane Intxaurraga Hika taldeko partaideak idatzi du obra hau, baina ideia Agurtzane eta Ritxi Lizartzarena da.

**G.** Ze mezu helarazi nahi diozue publikoari horrelako obra batekin?

**E.** Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea da espektakuluaren helburua, eta hori transmititu nahi zaio publikoari.

**G.** Benetan uste al duzu 2050. urtean euskara galduta egongo dela, antzezlanean ulertzera ematen den bezala?

**E.** Beno, hori egin dugu pixkat dramatiko jartzearren. Kontuan hartu behar da antzerkia dela; hala ere, egia esan, euskara gero eta egoera okerragora doala iruditzen zait, eta ez badugu ezer egiten galdu egin dezakegula.

**G.** Ze publikori dago zuzendua espektakulua?

**E.** Haurrentzako ez da, baina 15 urtetik aurrerako edozeinentzako modukoa da. Hori bai, euskaraz denez, hizkuntzaren muga ere hor dago, euskaldun jendearentzat bakarrik dela esan daiteke.

**G.** Bergararako ba al duzue aurrikusita emanaldirik?

**E.** Momentuz ez, baina nik badaukat esperantza. Niri, behintzat, sekulako ilusioa egingo lidake Bergaran aritzeak.

**G.** Ze proiektu dituzu eskuartean?

**E.** Alde batetik, orain estreinatzera goazen obra hau; eta bestetik, "Arraultza delikatuak". Hau ere euskararen aldeko espektakulua da, baina tabernetarako egokitua. Beraz, oraingoz, nahikoa lan badaukat.

## Juan Martin Elexpururen "Euskal lizunkeriaren antologia" kalean

**Joan zen** eguakitzean aurkeztu zuen Juan Martin Elexpuruk "Euskal lizunkeriaren antologia" bere azken lana, Txalaparta argitaletxearen eskutik. Honako liburu hau izango da Durangoko Azokan aurkezten diren liburu berrietako bat. Iaz "Krabeliña beltza" nobela erotikoa plazaratu zuen argitaletxe beraren eskutik Durangorako eta arrakasta handia izan zuen.

Oraingo honetan dakarkigun liburu hau, euskal literaturan eginiko araketa sakon baten emaitza da. Bertan, bertsoak, kanta zaharrak, ipuinak, sermoiak, aldizkarietako testuak eta abar biltzen ditu.

## Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkartearen erakusketa

**Bihar**, zapatua, zabalduko da eguerdiko 12:30-etan Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkartearen erakusketa Kultur Etxean, eta hilaren 12ra arte izango da ikusgai. Udazken Kulturalaren egitarauaren barne antolatzen ari diren erakusketa guztiak bezala, astegunetan 18:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Bertan, aspaldiko bitxikeria ugari ikusi ahal izango dira; besteak beste, zigiluak, txanponak, errosarioak, poxpolo-kaxak, Musika Bandaren kontzertuetako egitarauak eta abar.

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

aul@ XXI
multimedia eta animazioa
diseinu grafikoa
internet, web
diseinu industriala
ofimatika
photoshop
maketazioa
infografia 3D
Zure ikasketa zentru berria
Matrikula zabalik!
Irakasle bat taldeko
ikasleko ordenadore bana
Matrikula zabalik!
943-76 59 20
Aula XXI. Mintegi kalea. 5 ( tokieder ) 20570 BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



Ostiraletan izango dira txapelketak Kartzela Zaharrean.

# "Bergara ezagutzen" lehiaketa urtarriletik aurrera Kartzela Zaharrean

**Urtarrilean** jarriko da martxan aurten ere, Jardunek antolatzen duen "Bergara ezagutzen" lehiaketa. Bertan, Bergarako 13-17 urte bitarteko neska-mutilek hartu dezakete parte. Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolakoek, eta Ipintza eta Migel Altuna institutuko ikasleek parte hartuko dutela espero du Jardunek. Lehiaketa taldeka antolatuko da, eta talde bakoitza 15 lagunez osaturik egongo da. Txapelketa bakoitzean bi talde arituko dira elkarren kontra. Hainbat proba gainditu beharko dituzte partaideek: galderak, froga grafikoak eta jokoak. Era guztietako gaiak jorratuko dira; hala nola, Bergarako euskara, geografia eta natura, ekonomia eta kultura, historia eta artea eta kirolak.

Jardunek lehiaketa honekin helburu ezberdinak lortu nahi ditu: gazteek Bergarako euskara gehiago lantzea, herria hobeto ezagutzea, eta baita herriko hainbat jardueratan parte hartzeko motibazioa gehitzea ere.

Lehiaketa Kartzela Zaharrean izango da, eta oraindik zehaztu gabe dagoen arren, urtarrilean emango zaie hasiera frogei. Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek abenduaren 21a baino lehen eman beharko dute izena Kartzela Zaharrean bertan.

# Sevillako "Coro Rociero"ren kontzertua

Sevillako Espartinas herritik datorkigu abesbatza hau, eta Santa Marinako parrokian eskainiko dute kontzertua, bihar, zapatua, iluntzeko 8etan. Zapatuko kontzerturako hamar abesti ingururu iragarri dituzte, "sevillanak", "rumbak" eta "plegariak" besteak beste. Beraz, andaluziar abesti "rociero" ak zuzenean entzuteko aukera paregabea izango da zapatukoa. Azkenik, esan, Santa Zezilia eguna pasatu dela eta, eta Bergarako Aritzeta abesbatzak 20 urte betetzen dituela eta, bazkaria izango dutela zapatuan bertan, Altzasu elkartean.

**salduenak / azaroa**

## LIBURUAK

**EUSKARAZ**

1. BERGARAKO MARIAREN LAGUNDIA. Manoli Urra. Eusko Jaurlaritza
2. AI, AMA! Arantxa Iturbe. Alberdania
3. EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA EHU
4. ENAZ BANAZ Xabier Amuriza. Bertsolari
5. SINONIMOEN HIZTEGIA Uzei

**ERDARAZ**

1. MADERA DE BOJ Camilo Jose Cela. Plaza&Janes
2. MELOCOTONES HELADOS Espido Freire. Planeta
3. EL ULTIMO JUDIO Noah Gordon. Ediciones B
4. COMIDA AMIGA Mª Jose Rosello. Plaza&Janes
5. CORAZONES EN LA ATLANTIDA Stephen King. Plaza&Janes

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu*

## DISKOAK

1. HOMO SAPIENS? Su ta Gar
2. CLAPTON CHRONICLES Eric Clapton
3. THE BATTLE OF LOS ANGELS Rage against the Machine
4. IKASTEN Berri Txarrak
5. UN MAR DE CONFIANZA Luz Casal
6. BIZKAIAKO KOPLA ZAHARRAK Tapia, Leturia eta Amuriza
7. UNPLUGGED Mana

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko*







denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1.Sartalde. 2. Araudiak. 3. Gipuzkoako hiria. Lurra. 4. Zabor. Jainko egiptoarra. Iodoa. 5. Titanioa. Lasterka. 6. Emakume izena. Baino. 7. Atzizkia. Koblakari. 8. Uranioa. Tailen azpian paratzen den zurezko ohola. Kenketaren ikurraren izena. 9. Neskatxa. Gauero egin ohi dugu. 10. Bi hagez eta artean ezartzen diren oholez eraturiko tresnak. Gaueko argi.

### Goitik behera

1. Zerbait azaltzen den aldi-kopurua. 2. Semeen emazteak. Noren atzizkia. 3. Toka, naiz. Bokala. Droga ezaguna. 4. Hareazko metak. Gorotza. 5. Interjekzioa. Automatak. 6. Zerga ezaguna. Marokoko hiriburua. 7. Abuztu. Interjekzioa. 8. Politak. Azkenekoa. 9. Bizkaieraz, du. Untzi-alboa. 10. Gaia. Norbait.

*Soluzioa*

Ezker eskuma
1. Mendebalde. 2. Arautegiak. 3. Irun. Zorua. 4. Zakar. Ra. I. 5. Ti. Korrika. 6. Ane. Baina. 7. Sa. Koblari. 8. U. Lata. Ken. 9. Neskato. Lo. 10. Andak. Izar.

Goitik behera
1. Maiztasuna. 2. Erraina. En. 3. Nauk. E. LSD. 4. Dunak. Kaka. 5. Eti Robotak. 6. BEZ. Rabat. 7. Agorril. Oi! 8. Lirainak. Z. 9. Dau. Karela. 10. Ekaia. Inor.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da 1966. urtean sortu zen elkarte honen izena?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein da Enrique Bunburyren lehenengo diskoaren izenburua?
A- Radical brutal
B- Radical sonora
C- Radical fruit

2. Donostiako maratoiaren zenbagarren edizioa zen aurtengoa?
A- 25.a
B- 24.a
C- 22.a

3. Zein da Hika antzerki taldearen azken lana, gaur estrainatzekoa zena?
A- El florido pensil
B- Dama eta Kardinala
C- EuskalOFF 2050

Super BM

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAk asmatzaileon artean!*



Aurreko aleko saria, **Luis Mari Egaña**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Luis Mari!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **San Martin Agirre**
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** *1:* *2:* *3:*

Izen-deiturak: Telefonoa:

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*


Fortaleza
kafe ehoa
naturala/nahastua, 250 gr.
219 PTA!
*Super BMen beti eskaintzarik onenak!*

**Donostiarra da Udaleko oraingo Euskara Teknikarixa. 26 urte dittu eta Soziologia ikasi dau. Bergarako komertzio eta taldiek Udalarekin sinatu daben euskararen erabilpenerako hitzarmenaren jarraipena egitten dabil.**

# Julen Aranguren

**Ezagutzen dozu Bergara?**
Geroz eta gehixau.
**Eta bergararrak?**
Zerbait, azkenaldixan askorekin bildu bihar izan dot eta.
**Lanian gustoko dittuzun hiru gauza**
Gauza berrixak egittia, jendiarekin egotia eta goizez bakarrik lan egittia.
**Eta aldatuko ziñuzkeen hiru gauza?**
Batian bilduta; oso goiz jaikitzia.
**Lanbidez aldatzekotan, zer?**
Honen antzera, errutinarioa ez den bat.
**Txikitan zer izatia nahi ziñuan?**
Errealeko atezaina, Arkonada.
**Ikasle ona ziñan?**
Beharrezkua zanian bakarrik ikasten neban.
**Asteko egunik onena eta okerrena?**
Onena eguakitza, eta okerrena domeka arratsaldea, batez be neguan.
**Urtaro bat?**
Udazkena.
**Oporrak noiz?**
Ahalik eta gehixenetan.
**Bidaiatzia gustoko? Egin dozun azken bidaia?**
Asko, Costa Rica.
**Nora jungo ziñake?**
Latinoamerikako transiberiarra egittera.
**Postalak bidaltzen dittuzu?**
Gutxi.
**Gutunak idazten dittuzu?**
Bakarrik biharrezkua danian.
**Maitasunezkoak?**
Horrek die biharrezkuak.
**Maitasun-aitorpena, zelakua?**
Zuzenian harira jo eta berbarik barik.
**Irakurri dozun azken liburua?**
*Pura vida*, Mendilucerena.
**Juergazalia?**
Bai.
**Jairik onenak, zeintzuk?**
Bat batean ateratzen dienak.
**Esan bai, baina oraindik egin ez dozun gauza bat?**
Motxila hartu eta bakarrik bidaiatzia.
**Loterixan jokatzen dozu?**
Gabonetan bakarrik.
**Eta aurten, zenbat?**
3.000 pezeta.
**300 milioi irabaziz gero, zer?**
Munduari bueltak eman eta sekulan ez gelditzia.
**Gabonetako plan berezirik?**
Ahal izanez gero, desagertzia.
**Jaso dozun azken oparia?**
**Eta zuk egindakua?**
Liburu bat. Eta oparitu, "furby" bat nere ilobari.
**Zein opari jasoko ziñuke gustura?**
Kotxerako burua mugitzen daben txakur bat.



ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1
943 76 72 73
Mizpildi 8
943 76 12 32

Bolu
liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta lumatxoak
Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60



# Mariaren Lagundiko ikasle taldea, 1973

Mariaren Lagundia ikastetxeak bere sorreraren 200. urteurrena ospatu du aurten eta duela bi aste guraso, ikasle eta irakasle ohien bazkaria izan zen, ospakizunei amaiera emateko. Ikastetxean ibilitako 500 lagun bildu ziren azaroaren 20an egindako bazkarian eta giro ona izan zen nagusi, ikasle garaiko kontuak eta anekdotak gogoratzeko aukera izan baitzuten.

Sasoi batean emakumezkoek bakarrik zeukaten Mariaren Lagundian ikasteko aukera eta horren adibide goiko argazkia duzue. Bertan agertzen direnak 1962. urtean jaiotakoak dira eta argazkia 1973 urtekoa da, OHOko 5. mailan ari zirenean. Orduan uniformea ere beharrezkoa zen eta hor ditugu ikasleak txaketa edo jertse grisa, koadrodun alkandora eta gonarekin. Ezkerretik eskumara:

**Goian:** Isabel Fernandez, Ana Garcia, Kontxi Basterra, Timotea Galan, Edurne Altube, Ana Mari Gomez, Rosario Alcantara, Consuelo Hernandez, Mari Kontxi Gabilondo, Esther Garcia eta Araceli Herran.

**3. ilaran:** Koro Fernandez, Maite Cid, Yolanda Guillen, Paqui Gimber, Izaskun Iribecampos, Marian Hernandez, Agurtzane Atorrasagasti, Ana Mari Fernandez, Agueda Burgos eta Belen Garcia.

**2. ilaran:** Ana Luz Garcia, Inmaculada Fernandez, Elisa Lopez, Maria Dolores Luque, Manoli Gutierrez, Nerea Juaristi, Arantxa Arrue, Mari Luz Millo, Mari Karmen Aizpurua eta Yolanda Larrion.

**Aurrean:** Beatriz Larrañaga, Edurne Gallego, Lurdes Gonzalez, Beatriz Lonbide, Yosune Gardoki, Maite Aranzabal, Sara Azkarate eta Lide Lizarralde.

*Argazkia: Araceli Herran*

FRONTOI



TABERNA
Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

Zumelaga
JATETXEA
54 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25


UGARTE
AROZTEGIA
Apainketa •Altzariak
San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91


ZINEA ASMATU ZENETIK GAUZA HANDIENA
DVD
VIDEO
• CD baten neurriko euskarrian
• Irudia VHSa baino bi aldiz garbiagoa da
• Soinua infinituki garbiagoa da
• Hizkuntza, norberak aukera dezake
• Zinean ikustea bezalaxe baina etxean
• Pantaila panoramikoan ere ikusi daiteke
• Funtzio osagarriak
ZORAGARRIA IZAN LITEKE!
LA NIÑA DE TUS OJOS
AL FINAL DEL EDÉN
Aflicción
IRALA
Bideoak
VIDEOMATIC Plus
Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK




BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA
LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxa: 943 79 41 82
**ARRASATE**

GRUPO ARKAUZ
FAGOR

**ALTZARIAK**

**SUKALDE INTEGRALA**




Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tf. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA